# Hezkuntza Premia Bereziak D.B.H.n

## Ikasle minusbaliatu psikikoen premiei hezkuntza-erantzunak emateko gida

**kreena**
hezkuntza bereziko
baliabide zentrua Nafarroa

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

6 zk.

# Hezkuntza premia bereziak DBHn

*Ikasle minusbaliatu psikikoen premiei hezkuntza-erantzunak emateko gida*

**Nafarroako Gobernua**
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

**Gobierno de Navarra**
Departamento de
Educación y Cultura

**Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa (CREENA)**

*Dokumentu hau ondoko hauek osaturiko taldeak prestatu du:*

Carmen Cortés Urbán
Guillermo Iriarte Aranaz
M.ª Nieves Lerga Jiménez
Fernando Lezaun Herce
Lourdes Santos Gil
Koldo Sebastián Del Cerro
M.ª Luisa Villanueva Bengoechea

*«DBHko Pedagogia Terapeutikoko Irakaslea» Mintegi Iraunkorrak ekarri dizkigun iradokizunak, esanak eta ekarriak eskertzen ditugu*

| | |
|---|---|
| Izenburua: | Hezkuntza premia bereziak DBHn. Ikasle minusbaliatu psikikoen premiei hezkuntza-erantzunak emateko gida. |
| Argitalpena: | Pretexto |
| Inprimatzailea: | Linegrafic |
| I.S.B.N. | 84-235-1837-X |
| Lege gordailua: | NA-437-1999 |
© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Sustatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernua Argitalpen Fondoa
Lehendakaritza eta Barne Departamentua
Navas de Tolosa k/, 21
31002 IRUÑA
Telefono eta fax: 948 42 71 23

## AURKEZPENA

GIDA honek HELBURU DU DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN DAUDEN IKASLE MINUSBALIATU PSIKIKOEN PREMIEI HEZKUNTZA ERANTZUNA EMATEA. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak prestatu duen dokumentu hau *maiatzaren 8ko 133/1998 Foru Aginduaren osagarria da, eta beronek jarraipideak ematen ditu hezkuntza premia bereziekin batera minusbaliotasun psikiko, sentsorial eta motoreak ere dituzten ikasleak eskolatzeko eta laguntzeko, ikasle hauek Bigarren Hezkuntzako ikastetxe arruntetan eskolatuta daudela, oinarrizko irakaskuntzaren ondorengoa egiten*.

Nafarroako Foru Erkidegoan ikasle minusbaliatu psikikoak, salbuespenak salbuespen, DBHko ikastetxeetan eskolatuta daude. DBHren ezarpena egiten ari den urte hauetan Administrazioak aztertu du ikasle hauei dagokien hezkuntza erantzuna, eta berau hobetzeko asmoz jarraipideak eman ditu ikasle hauen eskolatzeari eta dagokien hezkuntza laguntzari begira. Honetarako GIDA hau prestatu da ikastetxeei laguntzeko curriculum berariazkoa prestatzen, beronek lagundu behar baitu ikaslez ikasleko curriculum egokitzapenak eta programak prestatzeko langintzan.

Hau eginda, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak LOGSEren agindua eta apirilaren 28ko 696/1995 Foru Aginduarena (Nafarroako Foru Komunitatean Hezkuntza Berezia antolatzen duena) gauzatu ditu.

LOGSEk, bere sarrerako hitzetan eta curriculum aniztasunari aipu eginez, hauxe dio: «espainiar guztiendako komuna den oinarrizko irakaskuntza era orohartzailean antolatuko da, curriculum aniztasun progresiboarekin bat eginez. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, curriculum aniztasun hau gero eta handiagoa izango da, eta honek ahalbidetuko du ikasleen interes ezberdinak aintzat hartzea, aldi berean ikasleen premia eta gaitasun ezberdinetara egokituz...». Aipaturiko legearen sarrerako tituluan (4. Art., 3. puntua) hauxe aipatzen da: «Hezkuntzako administrazio esku-

dunek ezarriko dute hezkuntza sistemako maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate ezberdinetako curriculuma»... eta 6. Artikuluko 1. Puntuak hauxe dio: «Oinarrizko irakaskuntzaren barruan irakaskuntza komuna bermatuko da ikasle guztientzat. Dena dela, azken urteetan edukien aniztasun egokia ezarriko da».

Laugarren tituluan (57. Art., 2. Puntua) hauxe aipatzen da: «Hezkuntza Administrazioek curriculumaren alde egingo dute irakaskuntzaren programaziorako ereduak eta irakasmaterialak sortu daitezen ahaleginak eginez, ikasleen eta irakasleen premia ezberdinei erantzuteko».

Ikasle minusbaliatu psikikoek behar al dute curriculum berariazko bana? Ikasleen aniztasunari erantzuteko neurri orokorrak ez dira aski ikasle hauei erantzuteko?

Ikasle minusbaliatu psikiko edo urritu intelektual arin edo ertainek euren eskolaldian zehar hezkuntza premia berezi iraunkorrak agertzen dituzte ikasle hauek duten adin kronologikoaren araberako curriculum mailei dagozkien eskola-ikaskuntzekin bat etorriz. Eskolaldiak aurrera egin ahala curriculuma gero eta zailagoa da, curriculumaren egokitzapenak gero eta esanguratsuagoak dira maila eta etapetan zehar, hezkuntza erantzuna gero eta gehiago urruntzen da curriculum orokorretik eta gizarteratzeko eskolaabaguneak ere gero eta urriagoak dira, nahiz eta hezkuntzako helburu orokorrak komunak izan ikasle guztientzat.

Bigarren hezkuntzako curriculumaren zailtasun progresiboa kontuan izanda, eta begi bistatik kendu gabe irakaskuntza hauek egiten ari diren ikasleek dituzten gaitasunei dagokien oinarrizko curriculumaren egokitasuna, bidezkoa da curriculum bat bereziki prestatzea, hezkuntza premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleen gaitasunetatik eta ikaskuntzetatik abiatuko dena, ikasle hauen prestakuntzaren jarraipena bermatuko duena, eta helburuak eta edukiak ordenatuko dituena, ikasleen gizarte eta lan integraziorik hoberena progresiboki lortzeko.

Minusbaliotasun psikikoa duten ikasleekin adituak eta arituak diren CREENAko profesionalek sortu dute dokumentu hau. Lan hau profesional hauen esperientziaren eta lanaren fruitu da, bigarren hezkuntzako institutuetan aholkulari eta orientatzaile ibiltzearen ondorioz, baita irakasleendako etengabeko prestakuntzaren alde ikastetxe hauetan pedagogia terapeutikoko espezialista-lana egin dutenaren ondorioz.

GIDA honek bigarren hezkuntzako irakasleei informazio nahikoa eskurarazi nahi die ikasle minusbaliatu psikikoen hezkuntza premiei buruz, eta lagundu nahi die plangintza prozesua egiten, ahalik eta hezkuntza erantzunik hoberena eman dezaten.

*Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria*
Jesús Javier Marcotegui Ros

# AURKIBIDEA

Sarrera ........................................................................................ 9

I. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN D.B.H.KO IKASLE MINUSBALIATU PISKIKOAK ........................................................................................ 11

1. Minusbaliotasun psikikoaren definizioa ................................ 11
2. Hezkuntza Premia Bereziak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 14
   2.1. Adimen premiak ........................................................ 16
   2.2. Pertsona eta gizarte autonomiako eta identitateko premiak

II. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN D.B.H.KO IKASLEENDAKO HEZKUNTZA PREMIAK ........................................................................................ 19

1. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleentzako curriculuma 19
2. Antolaketaren egitura ........................................................ 23
3. Helburu orokorrak ........................................................ 24
4. Egokitzapen irizpideak: edukiak hautatzea ............................ 29
5. Curriculum proposamen egokitua ........................................ 30
   5.1. Curriculum berariazkoa ................................................ 30
   5.2. Adibideak ........................................................ 35

III. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN D.B.H.KO IKASLEEN BANAN BANAKO CURRICULUM EGOKITZAPENAK ................................................ 47

1. Curriculum egokitzapenen ezaugarriak eta irizpideak ............ 47
2. Informazioa jasotzeko, erabakiak hartzeko ikaslez ikasleko curriculum egokitzapena egiteko proposamen/eredua ................ 50
3. Material osagarriak ........................................................ 64
   3.1. Hasiera ebaluazioko fitxetako 4. Orriaren gida ............... 64

3.2. Hezkuntza premia bereziak eta curriculum berariazkoa dituzten DBHko ikasleekin kontuan hartzeko helburuak, gela arruntetan integraziopean ........ 67
3.3. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako laguntza mesedegarriak ........ 68
3.4. Lan plangintza unitate berariazkoan eta integrazio arloetan ........ 73
3.5. Etengabeko ebaluazioa eta ebaluazio orokorra erregistratzeko ereduak ........ 75
4. Ikaslez ikasleko egokitzapenen adibideak ........ 79

IV. GEHIAGO JAKITEKO ........ 107
1. Lan irteerak ........ 107
2. Legedia ........ 110
2.1. Legezko arau interesgarriak ........ 110
2.2. 133/1998 Foru Aginduarekin zerikusia duten II. Titulua eta eranskinak ........ 111
3. Bibliografia didaktikoa eta kontsultarakoa ........ 124
3.1. Bibliografia orokorra ........ 124
3.2. Bibliografia berariazkoa ........ 125
4. Glosategia ........ 131

# Sarrera

Hezkuntza Sistema sostengatzen duen funtsezko printzipio batek bilatzen du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen integrazioa, ikasle bakoitzaren minusbaliotasunaren beharretara egokituz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Diseinuak curriculum erantzun ezberdinak aurreikusten ditu eskola integraziorako printzipioa bideratzeko eta sakontzeko. Curriculuma irekia eta malgua da, eta ezaugarri hauek ezinbestezkoak dira ikasle aniztasunari aurre egiteko. Curriculumaren planteamenduak makina bat egokitzapen posibilitate eskaintzen ditu, ikastetxez ikastetxe eta ikastaldez ikastalde hezurmamitzen baita, eta horrela jokatzen duelako ezberdintasunei erantzun ahal zaie eta ikasleek gainditu ditzakete dituzten zailtasunak, hona hemen eskaintzen diren lagungarri batzuk: irakasgaiak aukeratzea, curriculum ezberdinak eratzea, Curriculumaren egokitzapenak eta abar. Ikasle gehienentzat laguntza hauek aski izango dira euren ikasketetan aurrera egiteko.

Ikasle batzuk, ordea, minusbaliatu psikikoak dira, eta hauek ez dute nahiko aipatutako neurriekin. Dokumentu honek ikasle hauei eragingo die, eta bere helburua da honen inguruan, zuzenean nahiz zeharka, diharduten profesionalen lanabesa izatea, ikasleei ahalik eta hezkuntza erantzun onena eman diezaieten.

Lau atal ditu. Lehenengo biek marko teorikoa jorratzen dute eta mintzagai hartzen dituzte ikasleen gaia (definizioa, hezkuntza premia bereziak, hezkuntza erantzunak) eta curriculum berariazkoa (helburuak, egokitzapen irizpideak, curriculum proposamena). Hiru-

garren atalean ikaslez ikasleko curriculumaren egokitzapenak aintzat hartzen dira (ezaugarriak, irizpideak, nola landu, erregistro motak). Azken atalaren xedea informazioa osatzea eta sakontzea da eta lanbideak dakartza, baita araudia eta ikasgelarako material erabilgarrien eta bibliografiakoen zerrenda ere.

# I. Hezkuntza premia bereziak dituztuen D.B.H.ko ikasle minusbaliatu psikikoak

**ikasleak • definizioa • premiak**

## 1. Minusbaliotasun psikikoaren definizioa

Premisa batetik abiatuko gara: minusbaliatu bakoitza ezberdina da, eta euren arteko ezberdintasunak ez-minusbaliatuen artean izan daitezkeenak bezain ugari dira. Honetan oinarrituta, definizio bat mahairatzera ausartuko gara, honek «arriskuak badakartza» ere.

Minusbaliotasun psikiko edo atzerapen mentala diagnostiko kategoria bat da, arbitrarioki definituta dagoena, izan ere, denboraren poderioz definizio hori maiz aldatu da.

Hastapenetan definizio organikoak (Haurraren berezko atzerapen mentala, gabezia biologiko edo intelektualak ekartzen zituena) nagusitu ziren. Ondoren definizio psikometrikoa gailendu zen (adimenaren ahalmenean oinarrituta), eta honek definitzen zuen arbitrarioki non hasten zen atzerapen mentala. Gaur egun *dimentsio anitzeko ikuspegia* boladan dago, eta honen arabera elkarreraginaren kontzeptua nagusi da, gaitasun intelektual urriko pertsonen eta euren ingurunearen arteko elkarreragina, hain zuzen ere, eta minusbaliotasun psikikoaren kontzeptua sakontzea du helburu.

Izan ere, Atzerapen Mentalari buruzko Amerikako Elkargoak (AAMR) irizpide psikometrikoak kontuan hartzen ditu, oso modu hertsian ez bada ere; eta horrez gain, analisi berariazkoa areagotzen du bai egokitzapen-portaerako hainbat eremutan, bai giroetan, bai ikasleek behar dituzten laguntzetan.

1960an eman zen lehen definizioa, eta hortik aurrera zehaztapenak egin dira, azkena 1992an, AAMRk bere egin zuena.

*«Atzerapen mentala aipatzerakoan eguneroko gauzetan mugak izateaz ari gara. Bereizgarria da zeren eta adimenaren funtzionamendua batez besteko gizakienena baino dezente urriagoa baita, eta honekin batera beste urritasun batzuk ere ageri dira, ondorengoen artean bitan edo gehiagotan agertuz alegia: komunikazioa, zaintza pertsonala, etxe barruko bizitza, gizarte-trebetasunak, komunitatearen barruan moldatzea, norberaren burua gobernatzea, osasuna eta segurtasuna, trebetasun akademiko funtzionalak, aisialdia eta lana. Atzerapen mentala 18 urteak baino lehen agertzen da».*

Elkargoak berak ondoko baldintza hauek funtsezkotzat jotzen ditu definizio hau aplikatu ahal izateko:

*«1. Ebaluazio baliagarri batek kontuan izan behar ditu kultur eta hizkuntz aniztasuna, baita komunikazio era ezberdinak eta portaera faktoreak ere.*
*2. Egokitzapen trebetasunetan ageri diren mugak komunitatearen barruko ekintza ohikoetan, adin berekoen artean, ageri dira, eta ikaslez ikasleko laguntzen premia salatzen dute.*
*3. Egokitzapen trebetasunetan muga berariazkoak agertzearekin batera sarri gertatzen da beste gaitasun batzuk beste egokitzapen trebetasun batzuetan agertzea edo bestelako gaitasun pertsonalak izatea.*
*4. Aldi luze batez laguntza egokiak ematen badira, atzerapen mentala duen pertsonaren bizi funtzionamenduak onera egiten du, oro har».*

Ikuspegi berri honek, honenbestez, hiru baldintza batera betetzea dakar minusbaliatu psikikotzat hartu ahal izateko:

1. Noiz azaleratu (adina).
2. Adimenaren funtzionamendua batez bestekoa baino dezente urriagoa.
3. Bizitzan ongi moldatzeko oinarrizko egokitzapen trebetasunetatik (10 dira) bitan edo gehiagotan mugak izatea.

Honek guztiak ekarriko du dimentsio anitzeko ebaluazio baten premia, aurreko alderdi guztiak aintzat hartuko dituena eta eskolaren barruan modu honetan eragingo duena:

– Minusbaliatu psikikoek eskatzen dituzten *hezkuntza premia bereziak* antzematea; hauek iraunkorrak baina adinaren, testuinguruaren... arabera aldakorrak izango dira.
– Hezkuntza *erantzun* egokia ematea, laguntza nahiko emanez eta aldeko testuinguru bat eskainiz. Hezkuntza Sistemari berari eta Ikastetxeari berari dagokio ahalik eta erantzun normalizatuenak ematea antzematen diren gabeziei aurre egiteko edo gainditzeko.

Orain arte ikusi duzuenez inongo momentutan ez dugu minusbaliotasun psikikoen sailkapenik egin (arinak, ertainak, larriak, sako-

nak), zeren eta sailkapen hau zehatz-zehatza izango balitz ere, sekula ez gintuzke gidatuko ikasle bakoitzaren hezkuntza premia bereziei aurre egiteko bidean. Hala ere, kategoria hauek ezin dira baztertu erabat, zeren eta zuhurtasunez erabiliz gero oso erabilgarriak izan baitaitezke alor honetako profesionalen arteko komunikaziorako.

Jarraian, adibide baten bidez, bi helburu gauzatuko ditugu:

1. Batetik, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzerakoan ikasleen balioztapena modu praktikoan nola egiten den erakustea.
2. Bestetik, dokumentu honek aintzat hartzen dituen ikasleen profila definitzea.

Eta hauxe egingo dugu «Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzekoak diren hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle minusbaliatu psikikoen eskolatze modalitaterako proposamenaren irizpideei» jarraituz. (Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Orientabiderako Unitate Teknikoko eta Hezkuntza Bereziko Unitate Teknikoko taldeentzako dokumentu osagarria, jarraipide-dokumentuaren osagarria dena. 1998ko Martxoa).

Hauxe izango da kontuan:

«1. *Irizpide orokorra:*

*"Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatu ahal izango dira,* integrazio erregimenpean, *ikasle minusbaliatu psikikoak edo atzeratu mental arinak edo ertainak, portaera desorekarik gabeak badira, eta euren gaitasun maila aski bada ikasprozesuan egoki aurrera egiteko eta garabidean aurrerapausoak emateko integraziopean DBHko Ikastetxe jakin batean, Pedagogia Terapeutikoko irakasleekin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta ondoren Gizarte Garantiako (Balio Anitzeko Gelak) programa baten gidaritzapean Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntzan (...)".*

2. *Lehen hezkuntza amaitutakoan ikasleak zenbateraino ikasi duen ikustea, curriculum berariazko bat ikasi ahal izateko ikastetxe arrunt batean, integraziopean*

   2.1. *Zenbateraino ikasi duen egokitzapen portaerei dagokienez*

   – Zenbateraino ikasi duen bere kabuz leku ezagunetan barna ibiltzen besteen laguntzarik gabe. *"Eskola esparruan. Herriko bide arruntetan (herrian). Auzoan. Ohiko garraiobideak erabiltzerakoan eta abar.".*

   – Zenbateraino hartu dituen oinarrizko garbitasun eta segurtasun azturak. *"Erabateko autonomia oinarrizko garbitasun eta segurtasun azturei dagokienez (Autonomoki komuna erabiltzea, autonomo-*

*ki jantzi, erantzi, dutxa hartu, jatea eta abar). Arrisku egoerak aurreikustea, arrisku egoeren kontzientzia".*

- Talde barruko portaeraren autoerregulazioa. *"Portaera gogoetagabeak kontrolatzea. Portaera lasaia agertzea asperraldi eta gogoezaldietan. Arauak eta legeak errespetatzea".*
- Komunikazio trebetasunak. *«Ahozko aginduak ulertzea. Komunikazio koherente eta funtzionala, testuinguruaren eskakizunetara egokitua. Premiak adierazteko, laguntza eskatzeko, lehentasunak eta nahiak adierazteko gaitasuna".*
- Taldeka lan egiteko azturen autonomia *"Taldeari emandako aginduak betetzea. Emandako agindu batzuei jarraiki zeregin apalen bat egitea. Taldekako lanetan elkarrekintzan jardutea. Hartzen edo ematen zaizkien lanetan arduratsuak izatea (mandatuak, enkarguak eta abar). Txandak errespetatzeko gaitasuna".*

*2.2. Lehen Hezkuntzako helburuak noraino gauzatu diren:*

*Irizpide orokorra: Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloari dagozkion curriculum eskakizunak gainditzea.*

*3. Beste gogoeta batzuk*

*a) Ikasleek, UAEk eta Orientatzaileak berak dioenez, Lehen Hezkuntzan zehar eskolatze eta hizkuntz erantzun egokia izan dute ikastetxe arrunt baten barruan eta programa edo "curriculum egokitzapen" baten ildotik, euren hezkuntza premia bereziak asetzeko.*

*b) Lehen Hezkuntzan zehar Ikastetxe Arruntean eskolatzeko modalitatea zalantzan jarri da, ikaslearen premiekin bat ez zetorrela argudiatuz.*

*c) Lehen Hezkuntzan zehar ikaslea "Hezkuntza Bereziko Ikastetxearen alternatiboa den Gela Itxia" modalitatepean egon da.*

*a) puntuak pentsarazten digu DBHko Ikastetxe Arrunta izango dela Oinarrizko heziketaren bidetik jarraitzeko ikastetxea. b) eta c) puntuek pentsarazten digute, berriz, Ikastetxe Berariazkoa izango dela».*

## 2. Hezkuntza premia bereziak DBHn

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen hezkuntza premiak aztertzen ditugunean ikusten dugun lehen zailtasuna arazoen aniztasuna da. Ezberdintasunak asko eta askotarikoak dira: motak, mailak, denbora, iraunkortasuna. Hezkuntza erantzunak kudeatzeko funtzionaltasun irizpideak erabili ditugu, eta hauek aplikatuz 4 mota ezberdin ezarri ditugu, nahiz eta jakinaren gainean egon ikasle guztiendako baliagarriak ez diren, tarteko ezaugarriak agertzen dituztelako. Hona hemen mota hauek guztiak:

## HEZK. P. BEREZIAK DITUZTEN DBHKO IKASLEEN SAILKAPEN FUNTZIONALA

| | *Ikasleak agertzen duen maila eta arazo pedagogikoa* | *Motaren ezaugarriak* | *Curriculumaren erantzunak* | *Antolaketa mota* |
|---|---|---|---|---|
| 1. Mota | – Lehen hezkuntzako helburuak gainditua.<br>– Arlo berariazkoetan arazoak. | – Gabezia sentsorialak.<br>– Gabezia motoreak.<br>– Beste gabezia jakin batzuk. | – Oinarrizko Curriculumari eragiten ez dioten Curric. Egokitzapenak: ez esanguratsuak.<br>• Materialen egokitzapenak.<br>• Edukiak lehenestea.<br>• Helburuak lehenestea.<br>• Exigentziak egokitzea.<br>• Eta abar.<br>– Urte bat gehiago kurtso edo ziklo batean ematea.<br>– Curriculum arrunta. | – Eskola taldea.<br>– Talde malguak.<br>– Talde homogeneoa.<br>– Talde heterogeneoa.<br>– Beste batzuk. |
| 2. Mota | – Lehen hezkuntzako helburu guztiak bete gabe.<br>– Arlo instrumentaletan zailtasunak.<br>– Curriculum arruntari jarraitzeko arazoak.<br>– Bere eskolatzearen atzerapen orokorra.<br>– Ikasteko zailtasunak. | – Gizarte-kultur gabeziak (“muga funtzionalak”).<br>– Eskola hutsegiteak.<br>– Motibazio eza.<br>– Beste gabezia batzuk. | – Curric. Egok. esanguratsuak:<br>• Edukiak kentzea.<br>• Lehen Hezkuntzako baten bat gelaratzea.<br>• Lanbide adarreko aukerakoak.<br>• Eta abar.<br>– Curriculum arrunta. | – Taldekatze berariazkoak:<br>– Talde malguak.<br>– Talde homogeneoak.<br>– Talde heterogeneoak.<br>– Curriculum ezberdinak eratzea.<br>– Curriculum egokituaren unitateak.<br>– Beste batzuk. |
| 3. Mota | – Lehen hezkuntzako zenbait helburu bakarrik erdietsi ditu.<br>– Komunikazio arazoak izan ditzake.<br>– Etapako curriculumaren zati handiena ezin eskuratu.<br>– Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloen arteko gaitasun maila curricularra eskuratuta. | – Atzerapen arinak edo/ta ertainak.<br>– Portaera moldagaitz ez-larriak agertu ditzake. | – Oso curriculum egokitzapen esanguratsuak arlo guztietan:<br>• Helburuak eta edukiak kentzea.<br>• Arloa/k osorik kentzea.<br>• Helburu funtzionalak eta lanbide adarreko aukerakoak lehenestea.<br>– Curriculum berariazkoa.<br>– Ikaslez ikasleko heziketa ibilbidea. | – Unitate berariazkoa:<br>• Tailer atarikoak.<br>• Inguruneak.<br>• Proiektuak.<br>– Beste batzuk. |
| 4. Mota | – Lehen Hezkuntzako helburu guztiak eta DBHko batzuk gaindituta.<br>– Arlo jakin batzuetan nabarmentzen da eduki eta helburuak erdietsiz. | – Adimen aparta/Gaitasun handiak. | – Adimena aberastea.<br>– Ikaslez ikasleko curriculum egokitzapenak.<br>– Malgutasuna eskolaldian. | – 1 motako taldekatze berberak. |

Gida honek, aurreko atalean ikusi den bezala, aurreko laukian 3 mota izenpean barnebiltzen diren ikasleak aintzat hartzen ditu.

DBHko Ikasle minusbaliatu psikikoen hezkuntza premia bereziak aztertzerakoan ezin dugu ahaztu, bestalde, ikasle hauen adina (12-16) nerabezaroa dela.

Nerabearoa, bestalde, haurtzarotik helduarora igarotzeko bidean zubi-aldia da; oso aro kritikoa da guztiontzat eta «gazte minusbaliatuentzat nerabearoan nerabe izateak badakar koska bat: nerabe izan ahal izatea» (Siglo Cero, 120;18).

DBHko ikasle minusbaliatu psikikoen hezkuntza premiak planteatzerakoan, bi atal bereizi ditugu:

## 2.1. Adimen premiak

Ikasle hauen hezkuntza premiak zeintzuk ote diren ikusterakoan oso ezaugarri orokorren abiapuntutik abiatu beharko dugu; ezaugarri hauek ikasle minusbaliatuetan antzematen dira eta *garapen kognitibo, komunikatibo eta motoreari* eragiten diote.

*Garapen kognitiboari* dagokionez:

– Ikas-esperientzia gehiago behar izaten dituzte.
– Ikas-prozesuan ondoko hauek hartzen dute berebiziko garrantzia: metodologia eta jarduera aberats eta anitzak erabiltzea, gelaratzen diren edukien zatikatzea, sekuentziazioa eta operagarritasuna eta, azkenik, ikaskuntza jakin batzuen inguruan temati aritzea.
– Ikasia orokortzeko zailtasunak agertzen dituzte.
– Portaera inpulsiboa agertzen dute eta honek huts eginarazten die maiz.
– Oroimen arazoak dituzte epe ertain eta luzean.
– Trebetasun metakognitiboak dezente hobetu ditzakete eta honekin batera adimenaren funtzionamendua.

*Garapen komunikatiboari dagokionez*, aukera luze-zabala bada ere, hauxe adieraz daiteke:

– Ikasle hauen hizkuntz arazo normalenek ulermenarekin eta adierazpenarekin zerikusia dute, minusbaliotasun mailaren arabera. Mintzamenaren arazoak askotan ematen dira, baina maiztasuna txikiagoa da, eta sarri ez du zerikusi zuzenik euren adimen urritasunarekin.

*Garapen motoreari* dagokionez, zenbaitetan motore-gabezia asoziatuak ikusten dira. Oro har, minusbaliotasun psikikoa zenbat eta sakonagoa izan hainbat eta gehiagotan ageri dira motore-arazoak.

Honenbestez, ondoko hauen inguruan lan egingo dugu:

1. Honen inguruan bultza egitea: egitura logiko matematikoak garatzen eta ikasleen testuinguruko egoerak interpretatzen eta konpontzen.
2. Keinuzko, ahozko eta idatzizko gaitasun komunikatiboak garatzea.
3. Gaitasun artistikoa eta teknologikoa garatzeko bultza egitea.
4. Gorputz adierazpen bidezko motrizitate-posibilitateak eta autoezagutzakoak bultzatzea, trebetasun dinamikoaren mesedetan.

Ikasle hauek eskatzen dituzten hezkuntza premia bereziei dagokienez badago beste kontu bat, izan ere, Lehen Hezkuntzaren pareko maila intelektual batean egoteak ez du esan nahi helburuak, edukiak, metodologiak, baliabideak... etapari «hertsiki» dagozkionak direnik, baizik eta beharrezkoa izango dela eraldatze, egokitze eta bateratze lana egitea, alde batetik etapari dagozkionak hartuz, eta bestaldetik Bigarren Hezkuntzako motibagarriak (adin kronologiko horretarako), interesgarriak (funtzionalak direlako) eta malguak (egingarriak) direnak, euren adimen aberastasuna sustatuz eta nork bere hezibidean partehartze aktiboa izan dezan parada emanez.

Gainera bizitza aktibora eta lan bizitzara sartzeko zubialdi onona planifikatu beharko genuke, DBHko azken bi kurtsoetan «tailerrak», «lan proiektuak» eta antzeko ekintzak hartzen dituen metodologia erabiliz.

## 2.2. Pertsona eta gizarte autonomiako eta identitateko premiak

Ikasle bakoitzak bere identitatea eratu beharra du, bere baitan gertatzen diren aldaketa fisikoak (sexualitatea eta gorputza) eta psikologikoak naturaltasunez onar ditzan. Beraz, nork bere irudia eraiki dezan lagundu behar zaie, eta lagundu behar zaie, halaber, autoestimu egokia eta sentimenduzko eta maitasunezko pertsona-oreka erdiesten ere.

Gainera, pertsona eta gizarte autonomia lortzeko aukerabideen premiak dituzte. Lehenengo eta behin hain erroturik dagoen minus-

baliatuaren «umea» estereotipoa desagertarazi beharko litzateke, eta honen ordez gizartean parte hartzeko abagunea eman behar zaie nerabe gisa, gero helduak izan daitezen (nork bere ahalmenen arabera).

Saiatu behar da nerabe minusbaliatu psikikoek bizipen afektiboak eta euren adinekoen antzeko esperientziak bizi ditzatela (eginbeharrak, gizarte erantzukizunak, euren iritziak aintzat hartzea, hutsegitea edo porrota ekar ditzaketen egoerak saihestu gabe, erabakiak ikasleek ez bestek hartzea...), modu honetan, euren burua baliagarria eta independente ikus dezaten euren gaitasunen mugen barruan, baina ahalik eta autonomia handien euren esku utziz.

Gizarte Trebetasunetako programen bidez nerabe minusbaliatu psikikoari lagundu behar zaio, eta egokierak eta bizipenak eskaini behar zaizkio gabezietan eta hutsuneetan trebetasunak lortzeko, eta baliabide asko eta askotarikoak eskura eman behar zaizkio nork bere autonomia eskura dezan.

Baina egitasmo hauek arrakasta izan dezaten beharrezkoa izango da, zenbait kasutan, bederen, jarrera eta ikusmolde aldaketa (protagonismoa haiei utziz); jarrera aldaketa honek ikasleen gainbabesa saihestea eskatzen du, eta eskatzen du, baita ere, ikasleei gaitasunak eta egokierak ez ukatzea; honek gurasoen eta ikastetxearen arteko harreman estuak ezinbesteko bihurtzen ditu.

Nerabe minusbaliatuaren garapen orekatuaren mesedetan funtsezkoa da Ikastetxeak eta familiak bizipen eta posibilitate anitz ematea ikasleari, bere Ikaskuntzak gizarte trebetasunen bitartez garatzeko, aplikatzeko eta orokortzeko, eta bere buruaren identitatea eraikitzeko.

Hau guztia dela eta, hezkuntza premia bereziak dituzten DBHko ikasleentzako curriculum berariazko bat prestatzeko premia ikusten dugu; curriculum honek integrazioa erraztuko luke, eskola inguruan bezala gizarte-komunitate ingurunean ere. Gainera, curriculum alderdi arruntak ezezik beste alderdi berariazko batzuk ere aintzat hartzea izango luke helburu.

# II. Hezkuntza premia bereziak dituzten DBHko ikasleentzako hezkuntza-erantzunak

**curriculuma • antolaketa • egokitzapena**

## 1. Hezkuntza P. bereziak dituzten ikasleentzako curriculuma

Ikuspegi integratzaile eta eraikitzaile batetik abiatuta, DBHko ikasle minusbaliatu psikikoen hezkuntza premia bereziei aurre egiteko curriculumaren prestaketa egin beharra dago printzipio jakin batean oinarrituta: ikasle guztiak ikasteko eta aurrera egiteko gai dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko parte aktibo izaten uzten bazaie, ikasle bakoitzaren ezberdintasunak aintzat hartuz, hots, gaitasunak, lehentasunak, estiloak eta ikas-erritmoak.

*Normalizazio* honek ekarriko du edozein ikasle ahalik eta gehien gizarteratzea pertsona guztien esparruetan eta jardueretan, bere gaitasuna, emankortasuna, askatasuna eta osotasuna ahal denik eta gehien gara ditzan; eta honen arabera ondorioztatuko dugu, aldi berean:

– Alde batetik, hezkuntza tiporik egokiena praktikan jartzea, hots, ikasle orori bidea ematea ahalik eta ingurune ez-murriztatzailenaren barruan bere burua garatu dezan eta hezkuntzak eskaintzen dituen ohiko abaguneetan parte har dezan, modu honetan *integrazio* mailarik gorena lortuz.

– Beste aldetik, heziketa ibilbideak jartzea, honetarako bidea emango dutenak: lehentasunak eta bigarren mailako tasunak bereizteko, zailtasun progresiboak gelaratu daitezen bidea emateko eta, azkenik, *norberaren* kasua nolakoa halako laguntza eta ebaluazio irizpideak hartu daitezen.

Integrazio-indibidualizazio bitasun hau hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako curriculumaren ardaztzat hartuta, beste hiru alderdi garrantzitsu ageri dira:

– Lehen-lehenik ezinbestekoa da adinkideekin pertsona mailan eragitea, *gizarteratzeko gaitasuna* garatzeko
– Bigarrenik, kontuan izan behar da ondoko eragile hauen arteko lotura: ikaslearen aurretiko ezagutzak, gauza berriak ikasteko ikasleak agertzen duen prestutasuna eta, azkenik, eskolaratuko diren kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak. Honek *esanahiz hezurmamituko* du ikaslearen ikasia.
– Eta azkenik, ikaslea pertsona heldua izan dadin mesedegarri gerta daitezkeen alderdiak lehenestea, ahalik eta autonomia handienetik abiatuz eta ikaskuntzen *funtzionaltasun* irizpideak aplikatuz.




Hau guztia dela eta, hezkuntza premia bereziak dituzten minusbaliatu psikikoen eta portaera-arazodun ikasleen helburu orokorrak berberak izango dira etapako gainerako ikasleen aldean, hortaz, programatuko diren jarduerek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako aurreikusitako gaitasunak garatzeko helburua izango dute, nahiz eta orduan orduko egokitzapenak egin beharko diren, kontzeptuzko eduki funtzionalenak hautatuz, prozedurak eta jarrerak lehenetsiz, eta batez ere, bizitza aktiborako edo/eta lan bizitzarako lagungarriak diren helburuak eta edukiak gelaratuz, ikasleek euren pertsona eta gi-

zarte autonomia osoa garatzen duten neurrian. Modu honetan curriculum berariazkoa eratuko da, ikaslearen oinarrizko pertsona eta gizarte heziketa bermatuko duena.

Honenbestez, curriculumaren *edukia* berezia (ezberdina) bada ere, beti hurbilduko da ahal denik eta gehien curriculum arruntera. Ikasleek egin ahal duten neurrian gela arruntean egingo dute programaren zati hau edo beste. Arloan arloko irakasleak ikaslez ikasleko curriculum egokitzapenak buruko ditu, Pedagogia Terapeutikoko irakaslearekin batera, eta beharrezko bada, beste espezialista batzuekin batera.

Lehen Hezkuntzako Curriculuma erreferente nagusitzat dutelako, badira egokitzapen maila altua eskatzen duten programa zatiak, eta hauen ardura Pedagogia Terapeutikoko irakasleek hartuko dute Unitate bakoitzean. Ikasleen interesak eta gaitasunak nolako Curriculuma halakoa izango da, eta metodologia praktiko eta funtzionala proposatuko du ikasleei ahalik eta gehien lagunduko diena helburu orokorrak eskuratze bidean. 12 urtetatik 14 urtetara Unitate Berariazkoak berak lehenetsi egingo ditu oinarrizko eduki instrumentalak, aurreko etapan ikasitakoak indartuz; eta 14 urtetatik 16 urtetara, Ikastetxeko azpiegiturak ahalbidetzen badu, behintzat, tailer jarduerak egingo dira Gizarte Garantiako ikasketak egiten dituztenentzat (Lanbide Hastapen Berezia) lagungarri izan daitezen.

Ikasle hauen ardurapeko irakasle taldearen (Pedagogia Terapeutikoko irakaslea, Arloetako irakasleak...) eginbeharra curriculum hau prestatzea da, eta curriculumaren zehaztapenak egiteko orientatzailearen aholkularitza izango dute, eta beharrezkoa bada, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko talde berariazkoarena. Profesional hauetako bakoitzak heziketa ibilbide hau garatzen eta antolatzen betetzen dituen *funtzioak* 133/1998 FORU AGINDUAN garatzen dira (Hezkuntza eta Kultura Kontseilariarena, maiatzaren 8koa, hezkuntza premia bereziak (urritasun psikikoa, sentsoriala eta motorikoa) dituzten ikasleak laguntzeko eta eskolatzeko jarraipideak ematen dituena, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe arruntetarako eta Oinarrizko Irakaskuntzaren ondoren aplikatzeko (ikus.: 113. orrialdea).

Nolanahi ere, ikasle hauen curriculum berariazkoa garatzerakoan ondoko hauek bezalako *jarduerak* kontuan izango dira:

– Curriculum arruntaren edukiak, prozedurak eta jarrerak dakartzaten jarduera funtzionalak, ikasleen laneratzearen eta gizarteratzearen mesedetan.

- Jarduera tekniko/manipulatiboak, ikasleek teknologiaren kultura ezagutu dezaten, gure gizartearen kultura orokorraren zati garrantzitsua baita.
- Erreferentziazko Jarduerak, gure ingurunea ezagutzeko metodo eta teknikak garatzeko baliagarriak.
- Arte jarduerak, hitzezkoa ez den komunikazioaren, sormenaren eta irudimenaren oinarri izan daitezen.

Curriculum mota honen garabiderik hoberenak ekintzaz mamituriko plangintzak dira, baita proiektu orokorreko eta diziplinarteko metodologiak ere, baita tailerrak eta hauen tankerakoak ere, esaterako, sukaldaritza, elektrizitatea, zurgintza, zeramika, liburu azalgintza eta abar.

*Aukerako irakasgaiei* dagokienez, normalizazio eta integrazio printzipioekin bat etorriz, eta ikasle hauen programako hainbat alderdiri erantzun emateko, esan dezakegu ikasle hauek parte hartuko dutela beste gainerako ikasleek parte hartzen duten gisa berean. Dena dela komenigarria da nabarmentzea zer irizpide erabiliko diren aukerako irakasgaiak hartzerakoan:

- Osotasuna.
- Funtzionaltasuna edo aplikagarritasuna.
- Bizitza aktibora pasatzea.
- Egingarritasuna.

Ikastetxeak prestatuko dituen ikasle guztientzako aukerako irakasgai orokorrekin batera, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako irakasgai berariazkoak sartzeko posibilitatea ere aztertu ahal izango da, egoeran egoerakoek halaxe gomendatzen badute, ikastetxearen eskaintza ahalik eta gehien egoki dadin ikasle hauen posibilitate eta interesetara.

Hona hemen proposatzen diren aukerako irakasgai batzuk: tailerrak (sukaldaritza, zurgintza, elektrizitatea, argazkigintza, ikus-entzunezkoa, informatika, zeramika), gizarte trebetasunak, bizitza heldura pasatzea, asmakizun tailerra...

Orientabide Departamentuak erabakiko du zer ikasle, irakasgai eta epe izango diren modalitatez modalitate, egingo den ikaslez ikasleko programaren arabera.

## 2. ANTOLAKETAREN EGITURA

*«DBHko ezaugarriak ikusita, ez da gomendagarria alde batera uztea antolaketa forma batzuk zeren eta hezkuntza premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleentzat, urritu psikikoentzat, batez ere, onura handia ekar baitezakete, are gehiago baldin eta irakaskuntza-ikaskuntzako zereginaren zati handia UNITATE BERARIAZKO batean egiten badute hezkuntza aurrerapen egokia erdiesteko asmoz. Dena dela, ikastetxeak zenbat jarduera antolatu, horietan guztietan edo gehienetan bermatuko da ikasle hauen partaidetza».* Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen Hezkuntzaren Antolamenduari buruzko 696/1995 Errege Dekretuaren 15. artikuluko 5. puntua., apirilaren 28koa (1995eko ekainaren 2ko EAO, 131. zkia.).

Unitate hauek ez dira modu autonomoan hartuko, Curriculum Proiektutik edo Ikastetxeko Planetik urrun, baizik eta ikasleen aniztasunari erantzuteko curriculumaren egokitzapentzat, modu irekian aplikatuz, modu honetan, ikasle bakoitzari erantzun egokia emateko eta norberaren garapena bermatzeko, baina ahaztu gabe ingurune normalizatuari berezkoak zaizkion gizarte mailako hezkuntza helburuak.

Malgutasun irizpideak ezinbestekoak dira integrazio eta normalizazio irizpideak bermatzeko, gelak esparru itxiak izan ez daitezen. Irizpide hauek operatibo bihurtzeko eta ikasle bakoitzaren errealitatera egokitzeko, hona hemen iradokizun batzuk:

– Gela hauen pedagogi eta metodologi antolaketa aniztasun handikoa izango da, zeren eta alde batetik ikasleen aniztasuna eta bestetik ikastetxeen azpiegitura baldintzek halaxe eskatzen baitute. Ikasle bakoitzaren gaitasunak, aurretiko ezagutzak, interesak, estiloak eta ikasteritmoak nolako, bere heziketa ibilbidea halakoa izango da.
– Unitate Berariazkoaren programari dagozkion irakasgai instrumentalen edukien lana talde txikian eta beste espazio bereizi batean plantea daiteke, baina nahitaez aldi jakin batez, hots, erreferentzi talde arruntek gai horiekin zerikusia duten arloak lantzen dituzten bitartean.
– Ikasleek ahalik eta denbora luzeen parte hartu behar dute jarduera arruntetan eta arlo bakoitzean ere ahalik eta gehien probetxatu behar dute, erabateko probetxua zaila izango bada ere, beti ere programaren arabera eta gizarte helburuak kontuan izanda.

Hona hemen *irizpide nagusia*: gela hauetara joaten diren ikasleek nahikoa denbora pasatu beharra dute talde arruntarekin, talde horrekiko lotura sentitu dezaten eta beste ikasleekin batera parte har dezaten eurentzat onuragarriak diren jardueretan.

Dena den, beti badira ikasle minusbaliatu psikikoak curriculum eta psikologi gaitasun handiagoa dutenak, deskribaturiko 2 eta 3 moten artean leudekeenak (ikus. 15. orria), eta hauek beste antolaketa eta curriculum eredu bat eskatzen dute, zabalagoa eta arruntetik hurbilagoa, alegia.

<table>
<tr><th colspan="2">CURRICULUM ARRUNTA EGOKITZEA</th><th colspan="2" rowspan="2">CURRICULUM BERARIAZKOA</th></tr>
<tr><td>Curriculum arrunta, egokitzapen esanguratsuekin eta oso esanguratsuekin</td><td>Curriculum berariazkoa, C. arruntean eta beste erreferente batzuetan oinarritua</td></tr>
<tr><td>Taldekatze berariazkoak, laguntzak... integrazio erregimenpean</td><td>Unitate berariazkoak integrazio erregimenpean</td><td>Ikastetxe berariazkoen alternatiboak diren Hezkuntza Bereziko gelak (herriak)</td><td>Ikastetxe Berariazkoak (hiriak)</td></tr>
<tr><td>Limiteak<br>Arinak-Sakonak<br>(salbuespenez)</td><td>Arinak<br>Ertainak-Sakonak<br>Ertainak</td><td colspan="2">Ertainak<br>Ertainak-Arinak<br>Larriak</td></tr>
</table>

## 3. Helburu orokorrak

Maiatzaren 8ko 133/1998ko Foru Aginduko bosgarren ataleko 2. Puntuan (ikus. 111. orria) aipatzen diren curriculum erreferenteetatik eta irizpideetatik abiatuta helburu orokor egokitu batzuk ezarri daitezke, eta jarraian proposamen batzuk zerrendatuko ditugu ikasleek ahalik eta gehien aprobetxa dezaten.

Helburu hauetatik edo ikastetxe bakoitzeko Orientabide Departamentuak prestaturiko curriculum proposamenetan ageri diren helburuetatik aterako dira ikasleen bereizgarritasun eta ezaugarrietara

egokituko *diren ekintzak, kontzeptuak, prozedurak, jarrerak eta baloreak*.

1. Pertsona autonomia erdiestea, gizartetasuna garatzea eta ikaslearen ohiko testuinguruko gertaerak eta fenomenoak ezagutzeko erraztasunak ematea.
   1.1. Ikasleak giza gorputzaren funtzionamenduaz dituen aldez aurretiko ezagutzak erabiltzea, gorputz zaintzako eta garbitasuneko jarrerak, trebetasunak eta azturak garatzeko, modu honetan nork bere buruaren bizi eta gizarte giro osasungarria sustatuz.
   1.2. Besteen jokamoldeak errespetatu eta balioestea nahiz eta norberarenak ez bezalakoak izan, eta iritzi eta irizpide pertsonalak eratzea norberaren autonomia eta ekimenaren mesedetan.
   1.3. Aztertu eta balioestea segurtasun eta higiene arauak errespetatzeak zer eragin duen osasun eta segurtasun pertsonal eta kolektiboan, eta bere inguruneko ordenaren eta giro atseginaren alde egitea.
   1.4. Arazoei konponbide emateak dakarren gogobetetze sentimendua sentitzea eta balioestea, arazoen aurrean ekinaren ekinez aritzea, prozesuan ematen diren zailtasunak gainditzea, eta modu honetan norberaren eta ingurukoen ongizatearen alde egitea.
   1.5. Beste lagun batzuekin harremanak izatea eta taldekako jardueretan parte hartzea, jarrera malguak, elkartasunezkoak, gogozkoak eta tolerantziazkoak agertuz, aurriritzien eta inhibizioen gainetik jauzi eginez.
   1.6. Natura, gizarte eta kultur ingurunea zaindu eta gustuz erabiltzea, bai eta biziraunarazteko eta hobetzeko proposamenak egin eta balioztatzea ere, eta beharrezkoa bada, ekimenetan parte hartzea.
   1.7. Gizarte inguruneak asko eta askotarikoak direla ezagutu eta balioestea, dituzten proiektu, balore eta arazoetan parte hartuz eta dituzten eskubideez eta eginbeharrez kontzientzia hartuz.
   1.8. Bereizkeria egoerak ezagutu eta arbuiatzea, pertsonen eta gizataldeen aniztasuna aberasgarritzat hartuz.
   1.9. Natura eta gizarte gertaeren funtzionamendua agintzen duten oinarrizko kontzeptuak, prozedurak eta mekanismoak identifikatzea.

2. Komunikazio gaitasunak, bai keinuzkoak, bai ahozkoak, bai idatzizkoak, garatzea, mezu ezberdinak ulertzeko eta ekoizteko oso lagungarriak baitira.
   2.1. Mezuak ulertu eta adieraztea ahozko eta idatziko hizkuntza zehaztasunez eta egokitasunez erabiliz, eta beharrezkoa denean beste notazio eta irudikapen sistema batzuk erabiliz ere.
   2.2. Gorputzaren eta mugimenduaren aberastasun espresiboa komunikabide eta espresabide gisa ezagutu, balioetsi eta erabiltzea hainbat kultur eta arte jardueratan.
   2.3. Ikus eta plastika hizkuntzaren garrantzia balioestea bizipenen, sentimenduen eta ideien espresabide eta komunikabide gisa, baita sormena lantzeko eta norberaren oreka eta ongizatea hobetzeko ere.
   2.4. Ahotsez eta musikatresnez ideiak eta sentimenduak modu originalean adieraztea interpretazio eta inprobisazio egoeretan, norberaren komunikazioa hobetzeko, beti ere beste espresabide ezberdin batzuk errespetatuz.
   2.5. Entzunaldiak eta isilaldiak komunikazio moduak diren aldetik, hauekin gozatzea.
   2.6. Irakurketa eta idazketa komunikazio bide gisa balioestea, baita kultur aberastasun eta atsegingarri gisa ere.
   2.7. Hizkuntzaren bidez egiten diren manipulazio pertsonal eta kolektiboko prozedurak aztertzea eta horiei buruzko iritziak ematea.
   2.8. Hizkuntza lanabes gisa erabiltzea ikaskuntza berriak erdiesteko, errealitatea ulertu eta aztertzeko, pentsamendua finkatu eta garatzeko eta norberaren lana erregulatzeko.
   2.9. Norberaren jatorrizko hizkuntza ez den beste batean, hots, ikasleen gizarte ingurunean erabiltzen den hizkuntzan, ahozko eta idatzizko mezuak ekoiztea, bai eta egunero eta maiz erabiltzen diren esapide funtzionalak erabiltzea ere, eta nork bere burua besteei ulertarazteko eta besteena ulertzeko jarrera irekia erakustea.

3. Logika-matematikako egiturak ikastea, eta ikaslea non mugitzen den, hango berezko egoerak interpretatzeko eta horiei erantzunak emateko gaitasuna garatzea.
   3.1. Garrantzia duten zenbait teknologi aplikazio aztertzeko eta balioesteko oinarrizko kontzeptu batzuk erabiltzea.

3.2. Hainbat iturritatik bildutako informazioak egiaztatzeko eta ebaluatzeko irizpide pertsonal arrazoituak prestatzea.

3.3. Ekintzak edo jarduerak egiteko prozesuaren faseak banaka edo taldeka planifikatzea, ekintza edo jarduera horien osagaiak aztertzea, erdietsi nahi diren helburuetara egokitzeko, eta fase bakoitza bukatutakoan berrikustea.

3.4. Pentsamendu logikoko formak erabiltzea, konjeturak egin eta frogatzeko eta ondorioak ateratzeko, eta eguneroko bizitzarekin eta arazoak konpontzearekin zerikusia duten hainbat informazio erlazionatzea.

3.5. Errealitatea hobeto interpretatzen laguntzen duten alderdiak zenbatzea, zeren eta egoeran egoerako kalkulu egokiak eginez oso erabilgarriak baitira. Honetarako, datuak biltzeko teknikak, neurtzeko prozedurak eta zenbaki mota ezberdinak erabiliko dira.

3.6. Estrategia pertsonalak prestatzea, egoera jakinak aztertzeko, arazoak identifikatzeko eta ebazteko; baliabide eta lantresna ezberdinak erabiltzea eta estrategien komenigarritasuna balioztatzea emaitzen analisia egin ondoren.

3.7. Datuak biltzeko teknika errazak erabiltzea, hainbat gertakari eta egoerari buruzko informazioa biltzeko, hauen irudikapena egiteko eta iritziak egiteko.

3.8. Errealitatea anitza dela onartzea, baita onartzea ere ikuspegi ezberdinetatik, elkarren aurkakoak edo osagarriak, begiratu eta ikusi daitekeela.

3.9. Errealitatean ematen diren espazio formak eta harremanak identifikatzea.

3.10. Eguneroko egoeretan eta arazoak konpontzen matematikaren beraren moduak erabiliz jokatzea: bideak sistematikoki aztertzea, hizkuntza zehatza erabiltzea, ikuspuntuak aldatzeko malgutasuna eta ekinaren ekinez aritzea soluziobideak bilatzen.

4. Gorputz adierazpen bidezko psikomotrizitate eta autoezagutza posibilitateei bultza egitea trebetasun dinamikoa erdiesteko.

4.1. Ekintza fisikoa egunero eta sistematikoki egiteak zer eragin duen pertsonaren garapenean eta bere biziaren eta osasunaren kalitatean ezagutu eta balioestea.

4.2. Norberaren premiak eta interesak gogobetetzeko plangintza egitea eta jarduerak antolatzea, nork bere gaitasun fisi-

koak eta motrizitate trebetasunak, bai oinarrizkoak bai berariazkoak, norainokoak diren eta nola dauden balioztatuz.

4.3. Errendimendu motorea eta gorputz sasoia hobetzea, ahalmen fisikoak trebatuz eta zorroztuz, motrizitatea garatuz eta gorputzaren egokitzapen, menperatze eta kontrol funtzioak hobetuz, beti ere jarrera egokia eta saiatua agertuz.

4.4. Nork bere gorputza eta gorputz premiak ezagutzea, norberak bere burua den bezalakoa onartzea, eta bestalde, gizabanakoaren eta gizartearen aurkakoak diren osasun praktikei buruzko jarrera kritikoa agertzea, baita kritiko agertzea ere praktika horiek eragiten dituzten eragileekin ere.

4.5. Gorputz eta kirol jarduueretan parte hartzea, nahiz eta oso iaioa ez izan, lankidetza eta begirune jarrerak garatzea eta gorputz jarduerek dakartzaten harremanak balioestea.

5. Arte eta teknologi gaitasunak garatzeko beharrezko trebetasunak eskuratzea.

5.1. Sormenezko jarrera batez espresatzea, ikus, plastika eta teknologi irudikapenezko kodeak, teknikak, lantresnak eta sistema objektiboak erabiliz.

5.2. Autonomia, sormen, ordena eta metodoa erabiliz teknologi arazo errazei ekitea; beharrezko dokumentazioa eta materialak hautatzea eta prestatzea; orduan orduko arazoei erantzuteko, gauzakiak edo mekanismoak asmatu, egin eta ebaluatzea ikusmolde ezberdinetatik ikusita.

5.3. Tresna eta sistema teknikoak aztertzea, duten funtzionamendua eta erabilera eta kontrolerarik hoberena ezagutzeko.

5.4. Arte edo teknologi proiektu errazak egiteko proiektuak planifikatzea, dokumentazioa hautatuz eta beharrezko materialak erabiliz, horien garapena bideratzeko.

5.5. Arte eta teknologi proiektuak egitean bururatzen diren ideiak eta erabakiak komunikatzea eta ea bideragarriak diren ikustea, honetarako, hiztegi egokia eta ikaslearentzat egokiak diren baliabide grafikoak eta sinboloak erabiliz.

5.6. Arte edo teknologi proiektu errazak egitean beste arloetan ikasitako kontzeptuez eta trebetasunez baliatzea, modu honetan ikaskuntzak orokortuz.

5.7. Teknologi elementuen eta arazoen aurrean jakinmin eta ikasnahia agertzea, hauen aplikazioen eragin baikorrak eta ezkorrak balioztatuz.

5.8. Oinarrizko trebetasun manipulatiboak garatzea, arte-teknologia arlokoak diren zereginak ikasteko bidea errazteko.

## 4. EGOKITZAPEN IRIZPIDEAK: EDUKIAK HAUTATZEA

Interesgarria da orain marko orokor hori gida erabilgarri bihurtzea, gogoetaren eta erabakien norabidea orientatuko duena curriculuma zehazterakoan.

Honetarako komenigarria da hainbat galdera egitea eta hauen erantzunak ere ahalik eta gehienetan baiezkoak izatea.

Hona hemen planteamendua: «hautatutako ikas-edukia (kontzeptua, prozedura edo jarrera)...».

1. Ikas-edukiek bere egiten al dituzte ikaslearen ohiko esparruak eta hauen kopuruaren edo aniztasunaren alde egiten al dute?
2. Ikas-jarduerak bizitza praktikorako erabilgarriak izango al dira? Jarduera horiek, beharrezkoak edo erabilgarriak diren aldetik, pertsona minusbaliatu batek egingo al lituzke baldin eta hezkuntza premiak dituen ikasleak egingo ez balitu?
3. Halaxe ez izatekotan, jarduera horiek aurrebaldintzatzat hartzen al dira ondoren etorriko diren jarduerak, funtzionalak izango direnak, egin ahal izateko? edo bakarrik, ikasleen bizi kalitatearen onura dakarten jarduerak dira?
4. Ikaslearen adin kronologikora egokitzen al da/dira, hauen adinkide ez minusbaliatuen jardueren aldean?
5. Ikasiaren praktika ba al dakar? eta ematen zaien laguntza eta gainbegiratzea progresiboki kentzea ahalbidetzen al du?
6. Honelaxe ez izatekotan, beste egoera batzuk sortarazten al ditu non beste pertsona baten laguntzarekin eta elkarreraginaren bidez ikasleak zereginak eta ekintzak burutzea izango duen, bakarka lortuko ez lukeen maila lortuz?
7. Esan al liteke ikasleak, heldua denean, beharrezkotzat, errespetuzkotzat hartuko duela?
8. Kontuan hartzen al du ikasleak agertzen duen lehentasun maila?
9. Gizarte mailako elkarreragitean eta elkarrekintzako ikaskuntzan aurrerapenik ba al dakar?
10. Ikaslearen autoestimuari ezer onik ekartzen al dio eta ikaslearen inguruneko statuserako mesedegarria al da?

11. Ikasleak duen gaitasun maila ikusita, eta eskura ditugun baliabideak eta laguntzak kontuan izanda, eskuragarriak al dira ikasi beharrekoak?

## 5. CURRICULUM PROPOSAMEN EGOKITUA

### 5.1. Curriculum berariazkoa

Ikasle hauentzako berariazko curriculumaren abiapuntua, batetik, ikasleen hezkuntza premia bereziak aldez aurretik ezagutzetik etorriko da (ikasle hauek normalean adimen minusbaliotasuna -maila arina eta ertaina- duten pertsonak dira) eta bestaldetik ikasleen ezaugarriak momentu horretan nolakoak diren ederki ezagutzetik, beti ere ikasleen ezagutza maila neurtuko duen *hasierako ebaluazioa* egin ostean, programa diseinua ahalik eta normalizatuen bideratzeko. Beraz, Curriculumaren proposamen egokituari buruzko azken erabakia ikasleen premia bereziak hasiera-hasieran ebaluatzetik etorriko da, eta honek ahalbidetuko digu estrategia posibleak gauzatzea, premiei erantzuna emateko eta ikasle bakoitzaren curriculum egokitzapenak egiteko.

Honenbestez, balioztatu beharko da zer ikaskuntzari ematen zaion lehentasuna eta norainokoa den lehentasun hori, ikasle hauen premiei zor zaien *hezkuntza prozesu egokituenarekin bat etorriz,* beti ere zentzu orohartzailenean eta integralenean ulertuta, eta halaber gogoeta egin beharko da ea ikaskuntza jakin batzuk bideragarriak diren ikasleen ezaugarriak ikusita.

Dena den kontuan izan beharko dugu:

– Ikasleak pertsona heldu gisa gizarteratzeko lagungarriak izan daitezkeen helburuak, edukiak eta jarduerak lehenestea, beti ere ikasle mota hauen gaitasun eta ahalmenetara egokituz, prozedurazko eta jarrerazko alderdiak ardaztzat hartuta, eta ahaztu gabe, bestalde, helburu honen aldeko onura ekar ditzaketen kontzeptuak.
– Lehen Hezkuntzako curriculuma, Ikastetxe Berariazkoetako Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloko Curriculuma erreferentzi markotzat hartzea.
– Ikasle bakoitzaren bereizgarritasunak aintzat hartzen dituzten ibilbide berariazkoak ezartzea.

– Lankidetzako taldeen bidez gizarte garapena ikustea.

– Prozesu honek ekar dezake erreferentzi markoan aipaturiko helburuak hautatzea, egokitzea edo kentzea edo beste erreferente ezberdinetatik etorritako beste helburu batzuk baliagarritzat hartzea.

Taldearentzako egokitzapen proposamena edo curriculum berariazkoa zehaztu ondoren, hurrengo urratsa *Gelako programazioa* edo *irakaskuntzaren programa* bideratzea da, honetarako zenbait alderdi kontuan izango ditugu:

– Minusbaliotasunak ikaslearen garapenari eragiten dizkion ondorioak berdintzeko ekintzei lehentasuna ematea.

– Ikaslearen garatze autonomoa dakarren ikaskuntza lehenestea.

– Gizarte trebetasunak eta talde barruko elkarreragitea dakartzaten ikaskuntzak lehenestea.

– Ikaslearentzako jarduera esanguratsuak ekarriko dituzten ikasbideak hautatzea.

– Era askotako jarduerak egiteari lehentasuna ematea.

– Ikaslearen lehentasunak kontuan hartuz lan egitea.

– Eskolatik kalera edo gizartera aldatzeko bidea ematen duten ikaskuntzei lehentasuna ematea.

– Ikasleentzat eta hauen interesetarako eskuragarriak diren esparruak handitzen dituzten ikasiak lehenestea.

Honek guztiak eskatzen du, curriculum berariazkoari begira, hautatutako helburuen zatikatzea, sekuentziazioa eta operagarritasuna.

*Zatikatzea* diogunean jakin nahi dugu ea helburuek azpizatiak onartzen dituzten, hots, zeintzuk eta norainokoak izan daitezkeen ikaskuntzaren urratsak.

*Sekuentziazioa* egiteak eskatzen du azpizatitze antolatua ordenatzen duen prozesu logikoa aurkitzea, hauxe da, urrats bakoitza egitean hurrengorako oinarriak finkatzea.

Eta *operagarritasunari* dagokionez, urrats bakoitza ematerakoan eta formulatzerakoan, ebaluaziorako erraztasunak ematea da helburu, irakaskuntza egokia eragozten duen zailtasunen bat tartean dagoenean erraz aurkitua izan dadin eta helburuak noraino bete diren ikus dadin.

Hau egin ondoren, azken urratsa, hots, curriculum berariazkoaren proposamenak dakarren *irakasprogramaren garapena gela barruan*, eragile batzuen elkarreragina besterik ez da: «ikasle, curricu-

lum, irakasle» hirutasun interaktiboa gelaratzea, ikaslearen ezaugarrien eta bere gaitasun mailaren arteko oreka lortzea, bere garapenerako proposatutako helburuak eta, azkenik, momentu bakoitzean eman beharreko laguntza eta metodologia, edo bestela esanda, Ikas-programazioa gela barrura eramatea, ikaslez ikasleko Curriculum Egokitzapenak kontuan hartuz.

Ematekoa den laguntzak eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bakoitzean aplikatzekoa den metodologiak hautatzerakoan kontuan izan behar da ikasleari ahalik eta gutxien lagundu behar zaiola eta ikaslearen gaitasunak ahalik eta gehien optimizatu behar direla.

Honek hauxe esan nahi du: helburu bat erdiesteak laguntza modalitate jakin bat edo metodologia jakin bat eskatzen badu, bataz nahiz besteaz baliatu beharra dagoela, beti ere kontuan hartuz ikaslearen beraren posibilitateei kalte egin gabe edo ikasleak eskatzen duen laguntza mailatik gora egin gabe. Edo bestela esanda, laguntzak eta metodoak bitartekaritzat hartu behar dira ikaslearen gaitasun mailaren eta erdietsi nahi den helburuaren arteko zubi gisa.

Esaterako, lantresna baten erabilera irakasteko, bidea izan liteke ikaslearen eskuak hartu eta bere mugimenduak bideratzea, edo gu geu haien aurrean tresna nola erabili erakutsi ahal dugu, eta abar. Era berean grapak bukatu direlako grapak nola aldatu erakustea helburu bada, komenigarria izango da urrats guztien berri banan-banan ematea, edo bestela galderak eginez nola egin bidea erakustea.

Ikasle/curriculum/irakasle elkarreragitearen azterketa zorrotza egin beharra dago ondorengo hauek bezalako erabakiak hartzerakoan: «eredu» bidezko irakaskuntzaren ordez «akuilatze fisikoa» aplikatzea; «aurkikuntza gidatuaren» bidezko irakaskuntzaren ordez «jarraipide zuzenak» ematea.

Azkenik, irakasleek, ikaslez ikasleko programa (heziketa ibilbidea) egingo dute, ikasle «bakoitzaren» ezaugarri, gaitasun eta interesetara egokituz, baita ikasleak non mugitzen diren, hango testuinguru ezberdinetara egokituz ere.


Lehen hezkuntzako curriculuma
Oinarrizko etapako. Curriculuma i. berariazkoak
Beste errefente batzuk
Bigarren hezkuntzako lehen ziklolo curriculuma
Oinarrizko helburuak eta helburu funtzionalak. Ebaluazio irizpide egokituak
Ikasleen curriculum berariazkoaren proposamena
Hautatzea • Gelaratzea
Egokitzea • Kentzea
Hasiera ebaluazioa
Ebaluazio psikopedagogikoa.
Behaketa naturala
Erregistroak
Beste lantresna eta txoten batzuk
Irakaskuntzaren programazioa eta honen garapena ikasgelan
Zatikatzea.
Sekuentziazioa. Operagarritasuna
Antolaketa.
Laguntzak. Metodologia
Curriculum egokitzapenak
Ikaslez ikasleko programa


HELBURU OROKORRAK / UNITATE BERARIAZKOA
HELBURU DIDAKTIKOAK
Helburu orokorrak Unitate berariazkoa
Helburu didaktikoak erreferentzi taldea
Helburu didaktikoak / Unitate berariazkoa
Helbu orokor / Didakt arteko lotura
EDUKIAK
Helburu didaktikoak Unitate berariazkoa
P.C. aren minimoak erreferentzia taldea
Unitate koaren berariaz edukiak
Eduk/helburu didak. Arteko lotura
CURRICULUMAREN EGOKITZAPENAK
Helburu didaktikoak Unitate berariazkoa
Unitate koaren berariaz edukiak
Helburu didaktikoen egokitzapena
Edukien egokitzapena
Ebaluazio irizpideak
LAN PLANGINTZA ETA IKASLEZ IKASLEKO PROGRAMA
Zeregin eta eduki lehenetsiak
Lekua
Beharrezko baliabideak
Profesionalak
ETENGABEKO EBALUAZIOA

### 5.2. Adibideak

Jarraian adibide baten bidez Unitate Didaktiko bateko helburuak eta edukiak nola prestatu erakutsiko dugu Unitate Berariazko bateko Curriculumaren barruan. Honetarako, erreferente nagusitzat hartu dira 133/1998 Foru Aginduko 2. puntuko bosgarren atalean agertutakoak.

Adibideetan ageri diren helburuak eta edukiak erkatzeko, ilundu gabeko zutabe batean azalduko dira, eta zutabe ilunetan, berriz, erreferentziatzat hartu ez direnak.

#### A. *Helburu Orokorrak*

Lehenengo eta behin Unitate Berariazkoaren Helburu Orokorrak ezarriko dira, Oinarrizko Curriculum Diseinua aintzat hartuz (Ikus.: 24. orria).

#### B. *Helburu Didaktikoak*

Helburu hauek finkatutakoan Esparruko, Arloko edota Unitateko edo Blokeko Helburuak zehaztera pasatuko da. Jarraian aurkeztuko dugun adibidean suposatzen da Orientabide Departamentuak 4. Ataleko Helburu Orokorrak ezarri dituela. Helburu hauetatik hautatu dira Natur Zientzien arloan garatzekoak direnak eta laukiko lehen zutabean ageri dira.

Erreferentzi taldearen Helburu Didaktikoetatik abiatuta, eta hautatutako helburu orokorrekin eta ikasleen gaitasunekin bat etorriz, hurrengo urratsa izango da Unitate Berariazkoaren Helburu didaktikoak prestatzea, hautatuz, gauza berriak sartuz, egokituz, zatikatuz, eta behar denean, kenduz. Hemen garatzen den adibidean *«Ura»* izeneko unitate didaktikoa ageri da, Iruñeko BHI batean ezarritako Arloko Curriculum Proiektu batetik hartua, eta Unitate honen helburu didaktikoak taulako 2. zutabean xehaturik agertzen dira.

Metodologia honen bidez lortutako emaitzak 3. zutabean isladatzen dira. 4. zutabean, berriz, Unitate Berariazkoaren Helburu Orokorrei dagozkien zenbakiak, helburu didaktiko bakoitzarekin erlazionatuak, ageri dira.

#### C. *Edukian zutabea*

Modu bertsuan, aurreko puntuan prestatutakoa oinarritzat hartuz eta erreferentzi taldearentzat finkatutako edukiak ere oinarritzat hartuz, unitate berariazkoari dagozkion edukiak garatuko dira.

Adibidearen ildotik jarraituz, Unitate Berariazkoaren helburu didaktikoak (1. zutabea, laranja argia) eta Arloko Curriculum Proiektuan ezarritako gutxienezko edukiak (2. zutabea, urdin argia) ilunduta ageri dira; eta ilundu gabe, berriz, kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak (3. zutabea) ageri dira; azken hauek prestatuko lirateke aurrekoak kontuan hartuz, bai eta helburu didaktikoen (4. zutabea) eta hauen arteko lotura kontuan hartuz ere.

## B. Helburu didaktikoak. Adibidea.
### «URA» UNITATE DIDAKTIKOAK

| Unitate berariazkoaren taldekoentzako helburu orokorrak | Erreferentzi taldearentzako helburu didaktikoak | Unitate berariazkoaren taldekoentzako helburu didaktikoak | H.O./ H.D |
|---|---|---|---|
| 1.1. *Ikasleak giza gorputzaren funtzionamenduaz dituen aldez aurretiko ezagutzak erabiltzea, gorputz zaintzako eta garbitasuneko jarrerak, trebetasunak eta azturak garatzeko, modu honetan nork bere buruaren bizi eta gizarte giro osasungarria sustatuz.*<br>1.3. *Aztertu eta balioestea segurtasun eta higiene arauak errespetatzeak zer eragin duen osasun eta segurtasun pertsonal eta kolektiboan, eta bere inguruneko ordenaren eta giro atseginaren alde egitea.* | 1. *Material jakin bat deskribatzeko bere propietate bereizgarriak identifikatu behar direla ezagutzea, eta hauek asko eta askotarikoak direla. Propietate hauetako baten bat bai uretan bai urarekin nahasten diren materialetan identifikatzea (kolorea, usaina, disolbagarritasuna, egoera ingurugiro tenperaturapean, dentsitatea...).* | 1.1. Material jakin bat deskribatzeko bere propietate bereizgarriak identifikatu behar direla ezagutzea, eta hauek asko eta askotarikoak direla.<br>1.2. Propietate hauetako baten bat bai uretan bai urarekin nahasten diren materialetan identifikatzea (kolorea, usaina, disolbagarritasuna, egoera ingurugiro tenperaturapean, dentsitatea...)..<br>1.3. Oinarrizko propietateen datuak eta neurriak (bolumena, pisua, tenperatura) biltzeko teknikak erabiltzea. | 1.9.<br>3.9.<br>3.5.<br>3.7. |
| 1.6. *Natura, gizarte eta kultur ingurunea zaindu eta gustuz erabiltzea, bai eta biziraunarazteko eta hobetzeko proposamenak egin eta balioztatzea ere, eta beharrezkoa bada, ekimenetan parte hartzea.* | 2. *Bi propietate esanguratsuren ikaskuntzan sakontzea: disolbagarritasuna eta dentsitatea.* | 2.1. Propietate esanguratsu bati (disolbagarritasuna) buruzko azterlana egiten ideia intuitiboa eta praktikoa lortzea.<br>2.2. Disolbagarritasunaren fenomenoa eguneroko egoeretan ezagutzea, eta dakartzan inplikazio praktikoak ere ezagutzea. | 1.9.<br>3.7. |
| 1.9. *Natura eta gizarte gertaeren funtzionamendua agintzen duten oinarrizko kontzeptuak, prozedurak eta mekanismoak identifikatzea.* | 3. *Materialak erkatzea euren kidetasunak egiaztatuz.* | 3. Materialak erkatzea euren kidetasunak egiaztatuz, material horien behaketa, neurketa eta erkaketaren bidez. | 3.7.<br>3.9. |
| 3.5. *Errealitatea hobeto interpretatzen laguntzen duten alderdiak zenbatzea, zeren eta egoeran egoerako kalkulu egokiak eginez oso erabilgarriak baitira. Honetarako, datuak biltzeko teknikak, neurtzeko prozedurak eta zenbaki mota ezberdinak erabiliko dira.* | 4. *Nahasketak eta substantzia puruak ezberdintzea.* | 4. Nahasketak eta substantzia puruak ezberdintzea. | 1.9. |
| | 5. *Nahasketak bereizteko eta nahasketen propietateak ezagutzeko zenbait metodo ezagutzea. Metodo hauek aplikatzeko beharrezko ekintzak identifikatzea.* | 5.1. Nahasketak bereizteko eta nahasketen propietateak ezagutzeko zenbait metodo (oinarrizkoenak eta erabilienak) ezagutzea.<br>5.2. Metodo hauek aplikatzeko beharrezko ekintzak identifikatzea. | 1.9.<br>5.3. |

| Unitate berariazkoaren taldekoentzako helburu orokorrak | Erreferentzi taldearentzako helburu didaktikoak | Unitate berariazkoaren taldekoentzako helburu didaktikoak | O.G./ O.D |
|---|---|---|---|
| 3.7. *Datuak biltzeko teknika errazak erabiltzea, hainbat gertakari eta egoerari buruzko informazioa biltzeko, hauen irudikapena egiteko eta iritziak egiteko.* | 6. *Substantziak garbitzeko metodoak eta ura garbitzeko eta arazteko metodoak erlazionatzea.* | 6.1. Ur kutsatuaren eta kutsatugabearen artean bereiztea. Osasunerako duten garrantzia ezagutzea, eta giza-uraren kontsumoarekiko azturak eta prekauzioak garatzea.<br>6.2. Substantziak garbitzeko metodoak eta ura garbitzeko eta arazteko metodoak erlazionatzea. | 1.1.<br>5.3.<br>5.7. |
| 3.9. *Errealitatean ematen diren espazio formak eta harremanak identifikatzea.* | 7. *Ur zikloa ezagutzea, bai Naturan bai gizakiak esku hartzen duenean. Gertatzen diren aldaketak eta hauen arrazoi nagusiak ezagutzea.* | 7.1. Ur zikloari buruzko oinarrizkoena ezagutzea, bai Naturan bai gizakiak esku hartzen duenean.<br>7.2. Gertatzen diren aldaketak eta hauen arrazoi nagusiak ezagutzea. | 1.9.<br>1.6.<br>5.7. |
| 5.7. *Teknologi elementuen eta arazoen aurrean jakinmin eta ikasnahia agertzea, hauen aplikazioen eragin baikorrak eta ezkorrak balioztatuz.* | 8. *Laborategiko lantresnarik erabilienak ezagutzea, eta bertan aplikatu behar diren segurtasun arauak ere bai.* | 8. Laborategiko lantresnarik erabilienak ezagutzea, baita duten erabilera eta aplikazioa ere; baita ezagutzea ere laborategian aplikatu behar diren segurtasun arauak. | 1.3.<br>5.3. |
| 5.3. *Tresna eta sistema teknikoak aztertzea, duten funtzionamendu eta erabilera eta kontrolerarik hoberena ezagutzeko, baita ezagutzeko ere zein arrazoi daude hauen diseinuaren eta formaren azpian.* | 9. *Laborategian arretaz eta zehaztasunez lan egitea, garbitasun eta antolamendu arauak zainduz.* | 9. Laborategian arretaz eta zehaztasunez lan egitea, garbitasun eta antolamendu arauak zainduz. | 1.3. |
| | 10. *Ur kutsadura eta ur kontsumokeria saihesteko jokaerak baikor balioztatzea eta praktikan ere horrela jokatzea.* | 10. Ur kutsadura eta ur kontsumokeria saihesteko jokaerak baikor balioztatzea eta praktikan ere horrela jokatzea. | 1.6. |

## B. Edukiak. Adibidea.

### «URA» UNITATE DIDAKTIKOAK

| Unitate berariazkoaren taldekoentzako helburu orokorrak | Arloko curriculum proiektuaren gutxienezko edukiak | Unitate berariazkoaren taldekoentzako edukiak | Eduk. /H.D |
|---|---|---|---|
| 1.1. *Material jakin bat deskribatzeko bere propietate bereizgarriak identifikatu behar direla, eta hauek asko eta askotarikoak direla ezagutzea.* | ***Kontzeptuak***<br>1.1. *Materialen sailkapena (homogeneoak-heterogeneoak).* | ***Kontzeptuak***<br>1.1. Materialen sailkapena, homogeneoak eta heterogeneoak bereiziz. | 1.1. |
| 1.2. *Propietate hauetako baten bat bai uretan bai urarekin nahasten diren materialetan identifikatzea (kolorea, usaina, disolbagarritasuna, egoera ingurugiro tenperaturapean...).*<br>1.3. *Oinarrizko propietateen datuak eta neurriak (bolumena, pisua, tenperatura) biltzeko teknikak erabiltzea.*<br>2.1. *Propietate esanguratsu bati (disolbagarritasuna) buruzko azterlana egiten ideia intuitiboa eta praktikoa lortzea.* | 1.2. *Zer material mota da ura?* | 1.2. Zer material mota den ura. Oinarrizko propietateak:<br>1.2.1. Forma hiru egoeretan: solidoa (izotza), likidoa eta gaseosoa (lurrina).<br>1.2.2. Kolorea, usaina, zaporea.<br>1.2.3. Uraren erabilpen ohikoenak. Bizitzarako ezinbestekoak direnak.<br>1.2.4. Beste propietate garrantzitsu batzuk (disolbatzailea, bero-metatzailea...). | 1.1.<br>1.2. |
| 2.2. *Disolbagarritasunaren fenomenoa eguneroko egoeretan ezagutzea, eta dakartzan inplikazio praktikoak ere ezagutzea.*<br>3. *Materialak erkatzea euren kidetasunak egiaztatuz, material horien behaketa, neurketa eta erkaketaren bidez.* | 1.3. *Nahasketaren eta disoluzioaren arteko ezberdintasuna.* | 1.3.1. Nahasketaren eta substantzia puruaren arteko ezberdintasuna.<br>1.3.2. Nahasketaren eta disoluzioaren arteko ezberdintasuna propietate fisikoei dagokienez (ez molekula-mailan). Manipulazio tekniken bidez eta behaketa zuzenaren bidez ikastea. | 1.2.<br>2.1.<br>3.<br>4. |
| 4. *Nahasketak eta substantzia puruak ezberdintzea.* | 1.4. *Tenperaturaren eragina disolbagarritasunean.* | 1.4.1. Disolbagarritasuna eguneroko gauzetan.<br>1.4.2. Disolbagarritasunari eragiten dioten faktore praktikoak (tenperatura, irabiaketa). | 2.1.<br>2.2. |
| 5.1. *Nahasketak bereizteko eta nahasketen propietateak ezagutzeko zenbait metodo (oinarrizkoenak eta erabilienak) ezagutzea.*<br>5.2. *Metodo hauek aplikatzeko beharrezko ekintzak identifikatzea.* | 1.5. *Masa eta bolumena. Neurri unitateak. Neurri tresnen erabilera.* | 1.5.1. Masa materia kopuru den aldetik, kontzeptu honen inguruko hurbilpena. (pisua masatzat hartzen duen ikustea).<br>1.5.2. Bolumena.<br>1.5.3. Tenperatura.<br>1.5.4. Neurri unitateak (kg., g, l, mal, $m^3$, cc, ºC). | 1.1.<br>1.3. |

| Unitate berariazkoaren taldekoentzako helburu orokorrak | Arloko curriculum proiektuaren gutxienezko edukiak | Unitate berariazkoaren taldekoentzako edukiak | Eduk. /H.D |
|---|---|---|---|
| 6.1. *Ur kutsatuaren eta kutsatugabearen artean bereiztea. Osasunerako duten garrantzia ezagutzea, eta giza-uraren kontsumoarekiko azturak eta prekauzioak garatzea.* | | 1.5.5. Neurgailuen erabilera (balantza, bolumen ontzi graduatuak [probeta, sendagai tapoiak...] termometroa). | |
| | 1.6. *Materialak ezberdintzea dentsitatearen arabera, modu esperimentalean.* | (Kenduta). | |
| 6.2. *Substantziak garbitzeko metodoak eta ura garbitzeko eta arazteko metodoak erlazionatzea.*<br>7.1. *Ur zikloari buruzko oinarrizkoena ezagutzea, bai Naturan bai gizakiak esku hartzen duenean.* | 1.7. *Ur garbiketa eta arazketa.* | 1.7.1. Ur edangarria eta ur kutsatua. Kutsaduraren zenbait arrazoi.<br>1.7.2. Ura garbitzeko eta arazteko teknikarik errazenak eta arruntenak (destilazioa, dekantazioa, oxigenazioa, klorazioa).<br>1.7.3. Higienean eta osasunean duen garrantzia. | 5.1.<br>5.2.<br>6.1.<br>6.2. |
| 7.2. *Gertatzen diren aldaketak eta hauen arrazoi nagusiak ezagutzea.*<br>8. *Laborategiko lantresnarik erabilienak ezagutzea, baita duten erabilera eta aplikazioa ere; baita ezagutzea ere laborategian aplikatu behar diren segurtasun arauak.* | 1.8. *Ur zikloa.* | 1.8.1. Ur zikloa, maila orokorrean eta oinarrizkoan (beroak eragindako lurrinketa, hodei bihurtzea kondentsazio bidez, prezipitazioak, itsasora bueltatzea).<br>1.8.2. Gizakiaren eragina (arriskua, urtegiak, basoak soiltzea...).<br>1.8.3. Gizakiak eragindako ondorioak. | 7.1.<br>7.2. |
| 9. *Laborategian arretaz eta zehaztasunez lan egitea, garbitasun eta antolamendu arauak zainduz.*<br>10. *Ur kutsadura eta ur kontsumokeria saihesteko jokaerak baikor balioztatzea eta praktikan ere horrela jokatzea.* | ***Prozedurak***<br>2.1. *Balantza, probeta eta termometroa bezalako neurgailuak erabiltzea.* | ***Prozedurak***<br>2.1. Uso de instrumentos de medida:<br>2.1.1. Balantza.<br>2.1.2. Probeta.<br>2.1.3. Termometroa. | 1.3.<br>8. |

| Unitate berariazkoaren taldekoentzako helburu orokorrak | Arloko curriculum proiektuaren gutxienezko edukiak | Unitate berariazkoaren taldekoentzako edukiak | Eduk. /H.D |
|---|---|---|---|
| | 2.2. *Beirazko materialaren manipulazioa.* | 2.2. Beirazko materialaren manipulazioa. | 8.<br>9. |
| | 2.3. *Laborategiko segurtasun arauak; eta istripurik gertatzekotan, hartu behar diren segurtasun neurri garrantzitsuenak.* | 2.3. Laborategiko segurtasun arauak; eta istripurik gertatzekotan, hartu behar diren segurtasun neurri garrantzitsuenak. | 8. |
| | 2.4. *Materialen zenbait propietate ikustea.* | 2.4. Materialen zenbait propietate ikusi. | 1.1.<br>3. |
| | 2.5. *Sistema naturalen sailkapena: homogeneoa/heterogeneoa edo substantzia puruak/nahasketak.* | 2.5. Ohiko zenbait materialen sailkapena: homogeneoa/heterogeneoa edo substantzia puruak/nahasketak. | 1.1.<br>4. |
| | ***Jarrerak***<br><br>3.1. *Laborategian arretaz eta zehaztasunez lan egiteko jarrera.* | ***Jarrerak***<br><br>3.1. Laborategian arretaz eta zehaztasunez lan egiteko jarrera. | 9. |
| | 3.2. *Material esperimentala garbitzeko eta antolatzeko azturak.* | 3.2. Material esperimentala garbitzeko eta antolatzeko azturak. | 9. |
| | 3.3. *Ur kutsadura saihesten duten jarduerak egitea.* | 3.3. Ur kutsadura saihesten duten jarduerak egitea. | 10. |
| | 3.4 *Ura baliabide urria dela kontzientziatzea, eta horregatik kontsumo neurtua egiteko jarrera.* | 3.4 Ura baliabide urria dela kontzientziatzea, eta horregatik kontsumo neurtua egiteko jarrera. | 10. |

### D. *Ikaslez ikasleko heziketa ibilbidea (Curriculum egokitzapenak)*

Aurreko ataletan, beste gauza batzuekin batera (espazio eta denborak antolatzea, profesional eskuhartzaileak, integrazio arloak, eta abar) Unitate Berariazkoaren Curriculuma izan litekeenaren zati baten adibidebidea itxuratu da. Curriculum hau komuna denez, alde batetik erraztasunak emango dizkigu talde orokorraren jarduerak programatzeko, eta beste aldetik derrigorrezko erreferentea izango da azken egokitzapena, hots, ikaslez ikasleko Curriculum Egokitzapena, egiterakoan.

Hau dela eta, curriculum berariazkoaren edukiak prestatzerakoan *Unitate Berariazkoaren taldea* (talde generiko gisa dituen ezaugarriak kontuan hartuz) izango da edukiak hautatzeko, aldatzeko, kentzeko edo sartzeko erabakiko duen eragilea. Curriculum maila honetan, beraz, edukietan aldaketaren bat egiten dugunean, ez da beti beharrezkoa eduki horien zatikatzea eta sekuentziazioa egitea, baina egiten dugunean zabal jokatu behar da ikaslez ikasleko curriculum egokitzapenak sartuz.

Aurreko adibidean edukien zatikatze eta sekuentziazio askorik ez dago. Hauxe ikusteko, jarraian aurkezten dugun Curriculum Proiektu honetako 1.2. edukia ikus dezagun, ondorengo adibideetarako ere baliagarri izango dena. Hantxe ikusten dugu oraindik ez dagoela operagarritasunik, ikaslez ikasleko curriculum egokitzapenak oraindik ezarri ez direlako.

| **«URA» UNITATE DIDAKTIKOAK**<br>**EDUKIAK** | |
|---|---|
| *Arloko curriculum proiektuaren gutxienenzo edukiak* | *Unitate berariazkoaren edukiak* |
| 1.2. Zer material mota da ura? | 1.2. Zer material mota den ura. Oinarrizko propietateak:<br>1.2.1. Forma hiru egoeretan (solido (izotza), likidoa, gaseosoa (lurrina).<br>1.2.2. Kolorea, usaina, zaporea.<br>1.2.3. Uraren erabilpen ohikoenak. Bizitzarako ezinbestekoak direnak.<br>1.2.4. Beste propietate garrantzitsu batzuk (disolbatzaile, bero-metatzailea...). |

Edukien zatikatzea, sekuentziazioa eta operagarritasuna (azken hau, hots, operagarritasuna, ezinbestekoa da, maila honetan ikaslearen ebaluazio irizpide gisa erabilgarria izatea nahi badugu) ezin ditugu taldeka gelaratu, ikasleka baizik, zeren eta ikasle bakoitzaren hezkuntza-ezaugarri eta premia jakin horiek ezarriko baitute irakas-erritmoa.

Honako hau adibide batez argituko dugu. Bi ikasle hartuko ditugu oso curriculum eta gaitasun maila ezberdinak dituztenak, eta aintzat hartuko dugu, halaber, aurreko ataleko adibideko Unitate Berariazkorako hautatutako edukia.

a) XY ikaslea, minusbaliotasun psikiko arin-ertaina duen ikaslea, abstrakzio gaitasunik batere ez duena eta oinarrizko kontzeptuekin zailtasun franko dituena.

c) XZ ikaslea, limitea, ikaskuntza atzerapen larria duena, beste larrigarri batzuekin larriagotua: eskolatze txarra, ingurune sozio-ekonomiko eskasa (nekazari laguntzaile mugikorrak), famili arazo larriak...

Lehenengo kasuan, 1.2.1., 1.2.2. eta 1.2.3. edukiak zehazten eta mugatzen dira asko, zatikatze eta sekuentziazioetan egokituz. 1.2.4. kentzen da.

Bigarren kasuan, 1.2.1., 1.2.2. eta 1.2.3. eduki berberak zehaztu eta mugatzen dira beste gradu txikiagoan eta ia-ia zatikatzerik gabe, eta 1.2.4.-k, berriz, zatikatze eta sekuentziazio askotxo eskatzen du..

| «URA» UNITATE DIDAKTIKOAK<br>Ikaslea: XY CURRICULUM EGOKITZAPENAK | | | |
|---|---|---|---|
| *Unitate berariazkoaren taldekoentzako edukiak* | | *Edukien egokitzapena. Ebaluazio irizpideak* | |
| 1.2. | *Zer material mota den ura. Oinarrizko propietateak:* | | |
| 1.2.1. | *Forma hiru egoeretan (solidoa (izotza), likidoa eta gaseosoa (lurrina).* | 1.2.1.1. | Ura egoera likidoan ezagutzea. |
| | | 1.2.1.2. | Ura egoera solidoan ezagutzea. |
| | | 1.2.1.3. | Ura egoera gaseosoan ezagutzea. |
| | | 1.2.1.4. | Urak itxuraldatzen dituen formak (hiru egoeretan) aipatzea. |
| | | 1.2.1.5. | Beste produktu batzuk, forma likidoa, solidoa eta gaseosoa dutenak, aipatzea. |
| 1.2.2. | *Kolorea, usaina, zaporea.* | 1.2.2.1. | Gauzaki gardena eta opakoa ezberdintzea. |
| | | 1.2.2.2. | Gardena (koloregabetzat hartuta) eta kolore zuria ezberdintzea. |
| | | 1.2.2.3. | Ura zerbait gardena dela ezagutzea. |
| | | 1.2.2.4. | Beste gauzaki garden batzuk aipatzea. |
| | | 1.2.2.5. | Ur destilatuak ez duela usainik ezagutzea. |
| | | 1.2.2.6. | Usaingabe hitza erabiltzea usain gabe nabari diren substantziak izendatzeko. |
| | | 1.2.2.7. | Ur destilatuan zapore eza ezagutzea. |
| | | 1.2.2.8. | Zaporegabe hitza erabiltzea zaporerik nabari ez denean. |
| | | 1.2.2.9. | Urak kolore uherra (ez gardena) duenean purua ez dela ezagutzea. |
| | | 1.2.2.10 | Urari kiratsa darionean purua ez dela ezagutzea (kloroa, esaterako). |
| | | 1.2.2.11 | Urak zaporea duenean purua ez dela ezagutzea (ur gezia, ur kaltzioduna... kasu). |
| 1.2.3. | *Uraren erabilpen ohikoenak. Bizitzarako ezinbestekoak direnak.* | 1.2.3.1. | Uraren ohiko lau erabilpen, gutxienez, aipatzea: edatea, garbitzea, ureztatzea, jana prestatzea. |
| | | 1.2.3.2. | Ura eta landaretza (asko/gutxi) erlazionatzea. |
| | | 1.2.3.3. | IUra zerbait ezinbestekotzat jotzea. |
| 1.2.4. | *Beste propietate garrantzitsu batzuk (disolbatzailea, bero metatzaile...).* | 1.2.4. | (Kentzea). |

**«URA» UNITATE DIDAKTIKOAK**

**Ikaslea: XY** **CURRICULUM EGOKITZAPENAK**

| *Unitate berariazkoaren taldekoentzako edukiak* | *Edukien egokitzapena. Ebaluazio irizpideak* |
|---|---|
| 1.2. *Zer material mota den ura. Oinarrizko propietateak:* | |
| 1.2.1. *Forma hiru egoeretan solidoa (izotza), likidoa eta gaseosoa (lurrina).* | 1.2.1.1. Ura egoera likidoan ezagutzea.<br>1.2.1.2 Ur egoeraren hiru kontzeptuak (forma, bolumena mantentzea...) ezagutzea, aipatzea eta orokortzea. |
| 1.2.2. *Kolorea, usaina, zaporea.* | 1.2.2.1 Ur puruaren, dabiluraren eta ur kutsatuaren propietateak (kolorea, usaina eta zaporea) ezagutu, antzeman eta erabiltzea. |
| 1.2.3. *Uraren erabilpen ohikoenak. Bizitzarako ezinbestekoak direnak.* | 1.2.3.1. Uraren ohiko erabilpenak aipatu, erlazionatu eta antzematea, eta noraino diren garrantzitsuak ezagutzea: edatea, garbitzea, ureztatzea, jana prestatzea, energia ekoiztea, aisialdia, industria, hoztea, berotzea...<br>1.2.3.2. Uraren eta lurreko bizitzaren arteko lotura zuzena erlazionatzea, ezagutzea eta antzematea. |
| 1.2.4. *Beste propietate garrantzitsu batzuk (disolbatzailea, bero metatzailea...).* | 1.2.4.1. Urak beroa metatzeko eta barreiatzeko duen ahalmena ezagutzea.<br>1.2.4.2. Ahalmen hau eguneroko erabilpenetan, esaterako, berotzea eta hoztea, ezagutzea.<br>1.2.4.3. Ur egoeren eta urtzeko eta irakiteko puntuetako tenperaturaren arteko lotura ezagutzea.<br>1.2.4.4. Tenperatura horien eta bizitzaren arteko lotura ezagutzea, eta eguneroko praktika batzuk ere (adib.: ura irakitea germenak akabatzeko, jana prestatzea, izotza erabiltzea elikagaiak kontserbatzeko...) ezagutzea.<br>1.2.4.5. Uraren lurrinaren tenperatura aldaketaren eta presio aldaketen arteko lotura erlazionatzea aplikazio praktikoren bat aintzat hartuz (adib.: presio lapikoa...).<br>1.2.4.6. Disolbatzaile gisa duen ahalmena ezagutzea. |

# III. Hezkuntza premia bereziak dituzten DBHko ikasleen banan banako curriculum egokitzapenak

**informazioa biltzea • erabakiak • lantresnak**

## 1. Curriculum egokitzapenen ezaugarriak irizpideak

LOGSEko 4. Artikuluak dio *«curriculumtzat ulertzen da hezkuntza sistemako ikasmaila, etapa, ziklo, maila eta modalitate bakoitzean ematen diren eta irakaslana arautzen duten helburuak, edukiak, pedagogi metodoak eta ebaluazio irizpideak»*.

Curriculum *ireki eta malgua* izateak irakasleei eta ikastetxeei ahalbidetzen die erabakimen handia izatea hautatu beharreko *helburu, eduki, jarduera, metodologia eta ebaluazioari* buruz, beti ere arau marko baten barruan, ikasleek derrigorrezko etapetan dituzten gaitasun, interes eta motibazio ezberdinei aurre egin ahal izateko.

Curriculumaren ikuskera honek Unitate Berariazkoetako irakasleei bultza egin behar die, lehenengo, euren ikasleek dituzten ezaugarriak (ikasle bakoitzaren minusbaliotasun psikikoa nolako bere hezkuntza premiak halakoak direlako) kontuan hartzera eta, bigarren, curriculum berariazko bat ezartzera, oso egokitzapen esanguratsuak izango dituena curriculum arruntaren aldean, baina honetan oinarritua egongo dena eta oinarrizko irakaskuntzetan aipatutako erreferenteak izango dituena.

Dena dela, curriculum honek, ikasleen aniztasuna dela eta, ikaslez ikasleko egokitzapenak eskatzen ditu, ikasle bakoitzaren eskakizun jakinei erantzun ahal izateko; honek kontuan hartzera behartzen gaitu ondoko laukian aipatzen diren curriculum elementu ezberdinen egokitzapen irizpideak eta ezaugarriak:

## HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK (GABEZIA PSIKIKOENGATIK) DITUZTEN DBHKO IKASLEENTZAKO CURRICULUM EGOKITZAPENEN EZAUGARRIAK ETA IRIZPIDEAK. (LAUKI LABURTUA)

| *Curriculum elementuak* | *Irizpideak* | *Egokitzapenen ezaugarriak* |
|---|---|---|
| HELBURU OROKORRAK | – Gaitasunak, ikasleen garapen mailen eta ahalmenen arabera.<br>– Curriculum gaitasuna.<br>– Ibilbide berariazkoa.<br>– Ikaslearentzat esanguratsua izatea. | – LOGSEko ezaugarrietatik abiatuta.<br>– Helburuak hautatzea.<br>• Gizarte elkarreragina, autonomia, lan prestakuntza, bizitza heldurako laguntza funtzionala garatzen dituzten helburuak lehenestea...<br>– Aldatzea edo kentzea beharrezkoa bada.<br>– Beste erreferente batzuen arabera jokatzea. |
| ANTOLAKETA<br>Taldekatzeak-<br>Ordu banaketa | – Noraino (maila) parte hartu.<br>– Abstrakzio maila arloan edo esparruan.<br>– Ikaslearen curriculum gaitasuna.<br>– Egokitzapen posibilitateak.<br>– Material berariazkoen eskuragarritasuna.<br>– Ikaslearen jarrera, interesak eta motibazioak.<br>– Pertsona, maitasun eta pertsonarteko harremanak noraino garatu. | – Unitate berariazkoari dagokionez:<br>• Curriculuma esparruetan banatzea.<br>• Ahal delarik, 1 edo 2 laguneko gelarik ez osatzea. Hobeak dira elkar-ikaskuntza dakarten taldekatzeak.<br>• P. Terapeutikoko arduraduna.<br>– Talde arruntari dagokionez:<br>• Gizartetasuna garatzea.<br>• Ondoko arlo motak lehenestea: eduki funtzionalak dituztenak, tekniko/manipulatiboak, ingurunea ezagutarazten dutenak, gizarte elkarreraginak, artistikoak, garapen psiko-motoreak.<br>• Denbora osoa dena delako arloan. zatikazko kentzeak saihestea.<br>• Egokitzapen arduraduna (arloko irakaslea).<br>– Oro har:<br>• Malgutasuna.<br>• Irekitasuna.<br>• Denbora luzeagoa Unitate Berariazkoan, talde arruntean baino, baina gizarteratzea bermatzeko adinekoa, beti ere duten programaren arabera.<br>• Curriculumean ondoko hauen garapena bermatu behar da: elkarreragiteko eta autonomiako gizarte trebetasunak, trebetasun tekniko-manipulatiboak, gizarte barruko trebetasun instrumental praktikoak, autonomi eta garapen pertsonaleko trebetasunak. |

| | | |
|---|---|---|
| EDUKIAK | – Aurre-ezagutzatik abiatzea.<br>– Ezagutzak kantitatez eta sakontasunez areagotzea.<br>– Balio praktikoa eta erabilgarritasuna.<br>– Adin kronologikoa.<br>– Beharrezko laguntzak kontuan izatea.<br>– Komenigarritasuna Pertsona, gizarte eta lan bizitzari begira.<br>– Norberaren interesak.<br>– Autoestimua izatea, bai eta gauzak egiten konfidantza ere.<br>– Egingarritasuna. | – Prozeduretan eta jarreretan pisu handiagoa jartzea.<br>– Edukiak zatikatzea, ikaslearen ezaugarri pertsonalen arabera.<br>– Erabili beharreko metodologia errazten duen sekuentziazioa.<br>– Jarduera jakinei buruz eta horien ebaluazioari buruz erabakiak hartzea errazten duen operagarritasuna. |
| JARDUERAK | – Minusbaliotasuna berdintzea.<br>– Autonomi garapena areagotzea.<br>– Norberaren lehentasunak lehenestea.<br>– Gauzak modu artifizialean ez irakastea, bai ordea, modu errealean gizarte barrura hurbilduz.<br>– Esparru eta interes pertsonalak handitzea.<br>– Behar diren laguntzak kontuan hartzea.<br>– Laguntzak progresiboki nola kendu aurreikustea. | – Formulazio operatiboan oinarritzea.<br>– Anitzak, malguak eta askotarikoak.<br>– Elkarlaguntzako eta taldekako jarduerak lehenestea banakako jardueren gainetik.<br>– Esanguratsuak eta motibagarriak. |
| METODOLOGIA | – Ikaslearen interesguneak piztea.<br>– Jarduerak ikaslearen gaitasunekin bat etortzea.<br>– Beharrezko laguntzak aurreikustea, baita progresiboki nola kendu, kentzerik badago, aurreikustea ere.<br>– Ikasleak bere irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren protagonista izatea.<br>– Lehentasunak, interesak eta prestutasuna eginbeharrekoen aurrean. | – 12-14 urteetako aldia:<br>• Osotasuna.<br>• Aurreko etapetako ezagutzak sendotzea, gaitasunak hobetzearen mesedetan.<br>• Curriculuma esparruetan garatzea.<br>– 14-16 urteetako aldia:<br>• Disziplinartekoa.<br>• Askotarikoagoa.<br>• Tailer tankerako metodologia.<br>– Oro har:<br>• Aktiboa, malgua, partehartzailea, eta elkarlanekoa.<br>• Estrategia eta material asko eta askotarikoak. |
| EBALUAZIOA | – Araudi arruntaren menpe ez dauden ikasleak (oso egokitzapen esanguratsuak dituztenak).<br>– Ikasleek dituzten aurretiko ezagutzak ederki eta zorrotz nolakoak diren jakitea, eta horietatik abiatzea (Hasiera ebaluazioa)<br>– Ikasleari jakinaraztea nola aurreratzen ari den eta zeintzuk diren bere zailtasunak, bai eta noraino betetzen ari diren ezarritako helburuak. (autoebaluazioa)<br>– Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ezarritako helburuei egokitzea eta lotzea, ikaslearen ezaugarriekin bat etorriz (etengabeko ebaluazioa, ebaluazio hezitzailea, ikaslez ikasleko ebaluazioa).<br>– Noraino bete diren markatutako helburuak aldi jakin baten buruan (bildumazko ebaluazioa).<br>– Garapen afektibo, kognitiboa kontuan hartzea, baita gizarteratzeko garapena eta autonomia pertsonalekoa ere (ebaluazio integratzailea). | – Integraziopean talde arruntarekin:<br>• Eduki eta helburu egokituen ebaluazioa, ez taldearenak.<br>• Gizartetasunari eta garapen pertsonalari dagozkion helburuen eta edukien ebaluazioa.<br>• Irakasle taldeak batera eginiko ebaluazioa.<br>– Oro har:<br>• Ebaluazio normalizatua (aldi berberak, kalifikazio-liburu berdinak edo antzekoak...).<br>• Kalifikazio liburuekin batera ahozko eta idatzizko txostenak bidaltzea ebaluazio bakoitzean.<br>• Esparruz esparruko ebaluazioa, ikasle bakoitzaren errendimenduaren balioztapen bat eginez, ikasle bakoitzaren gaitasunak kontuan izanda. |

## 2. Informazioa jasotzeko, erabakiak hartzeko eta ikaslez ikasleko curriculum egokitzapena egiteko Proposamen/eredua

Aurreko laukian deskribaturiko irizpideak eta ezaugarriak gida izango dira Hezkuntza premia bereziak (oso esanguratsuak) dituzten gure ikasleen banan-banako Curriculum Egokitzapenak prestatzerakoan. Ikasle bakoitzaren Curriculum Egokitzapenak erregistratzeko lana errazteko eta batzeko, jarraian aurkezten dugun erregistro-eredua erabiltzea proposatzen dugu, ondoko bloketan banatuz:

| Curriculum egokitzapenak prestatzeko prozesua |
|---|
| *Datu orokorrak*<br>Alde batetik, ikaslearen datu pertsonalak biltzen dira, eta bestetik, esku hartzen duten profesionalenak (funtzioak, konpromezuak eta koordinazioa).<br>1. *Hasiera ebaluazioa*<br>– Datu jakingarriak ondoko hauei buruz: txosten klinikoak, txosten psikopedagogikoak, beste txosten batzuk, eskola ingurua, eskolaldiaren historia.<br>– Ikaslearen profila: ikaslearen balioztapena, nortasunaren datu garrantzitsuak, afektu eta harreman alderdiak, arauak ulertzea, arauetara egokitzea eta arauak betetzea.<br>– Curriculum gaitasuna oro har hartuta, esparruz esparru (gutxi gora-beherako erreferentziak).<br>– Motibazioak, interesak, gaitasunak eta ikas-estiloa (ikus. honi buruzko «material osagarria», atal hau betetzeko lagungarriak ematen dituena).<br>– Eskola inguruaren ebaluazioa: giza eta material baliabideak, espazioak, denbora antolaketa, aniztasunari aurre egiteko planak eragindako alderdiak...<br>– Alderdi garrantzitsuenen ebaluazioa, honek eskatzen dituen laguntzak barne. Curriculum gaitasuna esparruz esparru zehaztua.<br>2. *Erabakiak hartzea*<br>– Antolaketa erabakiak: Taldekatze motak, esparruak, espazioak, denborak...<br>– Planteatzen ditugun ebaluazio helburu/eduki/irizpide egokituak (esparruz esparru). Metodologia eta laguntzak.<br>– Erreferentzi taldearekin aritzean, integrazio helburuak («irakasgaietan») Ikus.: material osagarria.<br>– Familiari eskatzen zaion laguntza. |

3. *Material osagarriak*

- Hauek helburu dute informazioa jasotzeko eta erabakiak hartzeko erraztasunak ematea, curriculumaren prestatze prozesuan.
- Gida bat, lagunduko duena hasiera ebaluazioko blokeko «Motibazioa, interesak eta ikas-estiloak» orriak aipatzen dituen alderdi ezberdinei buruzko gogoeta egiten.
- Helburu posibleen zerrenda, integrazio irakasgaietan eta erreferentzi taldearekin lantzeko.
- Gida katalogo bat, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ematen diren laguntza ohikoenak biltzen dituena.
- Lan plangintza programatzeko fitxak, jarduerak egiteko fitxak eta edukiak ebaluatzeko fitxak.
- Jarduera denboralizatuaren programazio fitxa, integrazio irakasgaietan eta erreferentzi taldearekin lantzeko.
- Eduki-unitate edo eduki-bloke jakin bat lantzeko fitxa.
- Etengabeko ebaluazioaren eta ebaluazio orokorraren eredu orriak, ikasleak edozein irakasgaitan agertzen duen bilakaera erregistratzeko.

# IKASLEZ IKASLEKO CURRICULUM EGOKITZAPENA

Ikaslea: ______________________________________________

Unitate Berariazkoa: __________ Erreferentzi taldea: ____________

Ikastetxea: ___________________________________________

| CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK | DATUAK |
|---|---|
| Ikaslea: | Data: |

**Ikaslearen datu pertsonalak.**

| | | |
|---|---|---|
| Jaiotza data: | Adina: | Jaioterria: |
| Amaren izena: | Adina: | Lanbidea: |
| Aitaren izena: | Adina: | Lanbidea: |
| Helbidea: | | Telefonoa: |
| Erreferentzi taldea (integrazioa): | Jaio hizkuntza: | Beste hizkuntza batzuk: |

Funtzioak eta konpromezuak*

| Profesional inplikatuak | Funtzioak | Sinadura | Koordinazio espazioak eta denborak: |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 1/6 |
|---|---|
| Ikaslea: | Data: |

| **Eskola bizitzarako datu garrantzitsuak.** | |
|---|---|
| Beste profesional batzuen txostenetako datu garrantzitsuak (Baita diagnostikoa ere, balego) | Eskolaldiaren historia:<br>Eskolatzeari buruzko datu garrantzitsuak<br><br>Aurreko kurtsoko/zikloko/etapako datu garrantzitsuak.<br>(Antolaketa, edukiak, taldekatzeak, metodologia...) |
| Familiaren ingurua: | |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 2/6 |
|---|---|
| Ikaslea: | Data: |

| **Eskola bizitzarako datu garrantzitsuak.** | |
|---|---|
| Profil pertsonala:<br>Bere buruaren balioespena (Autokontzeptua, autoestimua, espektatibak...)<br><br>Besteekiko afektu eta harreman alderdiak (ikaskideak, irakasleak)<br><br>Nortasunaren alderdi garrantzitsuak | Pertsona autonomiako azturak<br><br>Arauak ulertzea, onartzea eta betetzea |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 3/6 |
|---|---|
| Ikaslea: | Data: |

| **Gaitasunen baliioztapen orokorra** | |
|---|---|
| Gizarte-natura esparrua | Komunikazio esparrua |
| Logika-Matematika esparrua | Psikomotrizitate esparrua |
| Arte-Teknologia esparrua | Oharpenak eta beste datu interesgarri batzuk |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 4/6 |
|---|---|
| Ikaslea: | Data: |

| **Motibazioa, interesak eta ikas-estiloa** | |
|---|---|
| Motibazioa: | Erreakzioak zailtasunen aurrean |
| Esparru, eduki eta jarduera lehentasunak: | Lan azturak: |
| Zaletasunak, gustuak: | Ikasteko estrategiak: |
| Arreta jartzea: | Jarrerak elkarlanean: |
| Oroimena: | Errendimendua: |
| Beste gaitasun batzuk (sormena, abstrakzio gaitasuna, intuizioa): | Indargarriak: |

| | |
|---|---|
| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 5/6 |
| Ikaslea: | Data: |

**Eskola ingurua**

| | | |
|---|---|---|
| Giza baliabideak: | Espazioak: | Taldekatzeen egokitasunaren azterketa: |
| Material baliabideak: | Denboraren banaketa: | Aniztasunari aurre egiteko planak eragindako alderdi garrantzitsuak: |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 6/6 |
|---|---|
| Ikaslea: | Data: |

| **Edukiak: Esparrua: ______________________** | |
|---|---|
| Eduki garrantzitsuenen ebaluazioa (Ezagutzak..., Gai da:...) | Beharrezko laguntzak eta oharpenak |
| | |

**CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** ERABAKIEN FITXA 1/4

Ikaslea: Data:

**Antolaketari buruzko erabakiak**

| *Taldekatzea* | *Esparruak/ irakasgaiak* | *Espazioak* | *Denbora* | *Profesional inplikatuak* | *Azalpena* |
|---|---|---|---|---|---|
| Unitate Berariazkoa | | | | | |
| Erreferentzi taldearekin (integrazioa) | | | | | |
| Ikaslez ikasle | | | | | |
| Beste taldekatze batzuk (zeintzuk) | | | | | |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | ERABAKIEN FITXA 2/4 |
|---|---|
| Ikaslea: | Data: |

| **Curriculumaren oinarrizko elementuak. Esparrua: ______________________** | |
|---|---|
| Helburu/Eduki/Ebaluazio irizpide egokituak (jakingo du egiten..., gai izango da...) | Metodologia eta laguntzak |
| | |

| | |
|---|---|
| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | ERABAKIEN FITXA 3/4 |
| Ikaslea: | Data: |

| **Integrazio irakasgaiak** | |
|---|---|
| Integrazio helburuak (Irakasgai guztietan komunak)* | Oharpenak: |
| | |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | ERABAKIEN FITXA 4/4 |
|---|---|
| Ikaslea: | Data: |

**Alderdi garrantzitsuak, familiaren laguntzari dagokionez**

| *Aldia* | *Helburuak* | *Familiaren konpromezuak* | *B.H.I.ren konpromezuak* | *Ikaslearen konpromezua* | *Koordinazioa Berrikuspena* |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |

## 3. Material osagarrik

Jarraian material osagarrien berri emango dugu bi ataletan sailkatuta bakoitzaren helburuaren arabera:

- Lehen material blokeak helburu du informazioa jasotzeko eta erabakiak hartzeko erraztasunak ematea, curriculuma prestatze prozesuan:
  - Gida bat, lagunduko duena hasiera ebaluazioko blokeko «motibazioa, interesak eta ikas-estiloak» orriak aipatzen dituen alderdi ezberdinei buruzko gogoeta egiten.
  - Gida katalogo bat, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ematen diren laguntza ohikoenak biltzen dituena.
  - Helburu posibleen zerrenda, Integrazio irakasgaietan eta erreferentzi taldearekin lantzeko.
- Bigarren bloke bat fitxa ereduak biltzen dituena: Lan plangintza programatzeko fitxak, jarduerak egiteko fitxak eta edukiak ebaluatzeko fitxak.
  - Unitate Berariazko jakin batean lan plangintza programatzeko fitxa.
  - Jarduera denboralizatuaren programazio fitxa, integrazio irakasgaietan eta erreferentzi taldearekin lantzeko.
  - Etengabeko ebaluazioaren eta ebaluazio orokorraren eredu orriak, ikasleak agertzen duen bilakaera erregistratzeko.

### 3.1. Hasiera ebaluazioko fitxeko 4. orriaren gida. (Kontuan har ditzakegun alderdiak

✍ *Motivazioak eta interesak:*

- Motibazio maila oro har.
- Motibazioaren bultzagarriak: erabilgarritasuna, lanen originaltasuna eta aniztasuna, balioztapen afektiboa, taldekatzeak, aldez aurretiko trebetasunetara egokitu den, jakinmina...
- Esparru, eduki eta jardueretan agertzen dituen lehentasunak (aipatu itzazue lehentasunak eta arbuioak).
- Zaletasunak eta gustuak (Didaktikoki aipagarrienak eta onuragarrienak bakarrik adierazi).
- ...

✍ *Arreta jarri:*

- Oro har (gaitasuna, erregulartasuna eta iraupena...).
- Estimulu edo/ta jarduera jakin batzuei dagokienez.
- Zeregin anitzeko jardueretan elementu bati baino gehiagori aldi berean aurre egiteko gaitasuna.
- Ikaslea bere buruaren baitan geratzen den, arreta galtzen duen, arretatsu egoki dagoen.
- Zeregin batek eskatzen duen arretari galarazten dizkioten kanpo-estimuluak.
- ...

✍ *Oroimena:*

- Bizkorra, epe laburrekoa, epe luzekoa.
- Zentzumenezko oroimena (ikusmena, entzumena, zinestesikoa).
- Oroimenarekin zerikusia duten beste funtzio eta alderdi batzuk.

✍ *Beste gaitasun batzuk:*

- Behaketa
- Sormena
- Abstrakzioa
- Intuizioa
- Somaketa (oharmena)
- Trebetasunak
- Orientabidea
- Gogoeta
- Orokortzea
- ...

✍ *Erreakzioak, zailtasunak direnean:*

- Etsipena.
- Erreakzio posibleak: agresibitatea, geldotasuna, antsietatea, blokeoa, arbuioa, saiatua izatea, huts eginez ikastea, huts egiteak aitortzea...
- ...

✍ *Lan azturak:*

- Autonomi maila.
- Materialaren zaintza eta garbiketa.

– Egin beharrekoari heltzeko (oldarkortasunez, gogoeta eginez...), antolatzeko eta sistematizatzeko estiloa.
– Irmotasuna eta erregulartasuna.
– ...

✍ *Ikas estrategiak:*

– Interpretatzea eta bere egitea: buruzko ikaste mekaniko, funtzional eta esanguratsua...
– Ikasi izanaren kontzientzia: akatsak, gabeziak, hutsuneak (beti, batzuetan, inoiz ez) antzematen dituen.
– Ezagutzen eta trebetasunen arteko lotura eta orokortasunak (aurretiko ezagutzak; erlazioak egiten dituen; orokortzeko erraztasuna, zailtasuna, inoiz ez...)
– Iturri jakintsuak erabiltzen dituen (Liburuak, irakaslea, ikaskideak...).
– Ikas-teknikak ezagutzen eta erabiltzen dituen.
– Adimen prozesuak. (Hipotesiak, analisiak, laburpenak, dedukzioak... formulatzen eta egiaztatzen dituen).
– ...

✍ *Jarrera elkarlanean:*

– Partaidetza maila: geldo, partehartzaile, aktibo, orohartzaile, antolatzaile, burukoia...
– Papera talde barruan: ea beti funtzio bera hartzen duen bere gain, ea funtzio ezberdinetara egokitzen den, ea ez duen funtziorik batere bere gain hartzen...
– ...

✍ *Errendimendua:*

– Errendimendu maila oro har.
– Errendimendu gora-beherak gaiaren arabera.
– Eginbeharrak noraino (maila) egiten dituen: eskuarki ez ditu egiten, hasi baina ez ditu bukatzen, bukatu egiten ditu beti.
– Nekaezina izatea.
– Eginbeharrak egiteko erritmoa.
– ...

✍ *Indargarriak:*

– Ikaskuntza berriei ekiteko, ikasleak eskuarki behar dituen laguntza edo indargarri motak (ikus. 68. orr.).

### 3.2. Hezkuntza premia bereziak eta curriculum berariazkoa dituzten DBHko ikasleekin kontuan hartzeko helburuak, gela arruntetan integraziopean

A. *Pertsona autonomia:*

1. Joan-etorriak egiteko autonomia izatea eta gela ezberdinak ezagutzea.
2. Itxura eta gorpuzkera zaintzea.
3. Higiene pertsonala zaintzea.
4. ...

B. *Materialaren zaintza eta erabilera:*

4. Ohiko eta beharrezko materialarekin eskolara joatea.
5. Beste eskola egun batzuetan zer material eskatu hura eskolaratu.
6. Materiala ikaskideekin partitzea.
7. Ororen eta norberaren materiala zaintzea.
8. Materiala biltzea eta behar izanez gero, garbiketa egiten laguntzea.
9. ...

C. *Cumplimiento de normas:*

10. Eskolara sartzeko eta ateratzeko puntuala izatea.
11. Eskolara huts egin gabe joatearena balioztatzea.
12. Irakasleari baimena eskatzea (materiala jasotzeko, komunera joateko...).
13. Nor bere integraziopeko irakasgaien eta jardueren arauak ezagutzea eta errespetatzea.
14. Ikastetxeko arau orokorrak ezagutzea eta errespetatzea.
15. Ikasleei, bai norbanako gisa bai talde gisa, ematen zaizkien jarraipideak eta aginduak betetzea.
16. Bakoitzaren mintza-txanda errespetatzea eta mintzaldiaren segida ez eragoztea.
17. ...

D. *Actitudes de socialización:*

18. Kortesiazko esapideak erabiltzea (agurrak, mesedez...).
19. Buruz buruko solaskideari «arretaz» entzutea.

20. Mezuak ulertzen dituztela edo ez dutela entzundakoa edo agindutakoa ulertzen adieraztea.
21. Nork bere irakasleari eta ikaskideei laguntza eskatzea.
22. Orduan orduko eskakizunak (premiak eta nahiak) egitean, eskakizun horiek bete bitartean itxaron gaitasuna izatea, orduan orduko egoeraren arabera.
23. Galderak egitea eta irakasleak eta ikaskideek egiten dituztenei erantzutea.
24. Nahiak, iritziak, asmoak komunikatzea bai talde txikian bai ikaskide guztien aurrean.
25. Berarekin harremanetan diharduten Ikaskideen, irakasleen eta langile irakasleen eta ez-irakasleen izenak ezagutzea eta erabiltzea.
26. Bai eskolako bai eskolaz kanpoko taldekako jarduereetan gogoz eta nahita parte hartzea.
27. Beste ikaskideek axut egitekotan, egoki erantzutea.
28. Ikasleak bere besteekiko ekintzen erantzukizuna bere gain hartzea, onak nahiz txarrak direnean.
29. Jarrera egokia (kirolezkoa) izatea kirol jarduereetan eta jokoetan bai irabazterakoan bai galtzerakoan.
30. Lagunarteko harremanetan giro egokia lortzea (atsegina).
31. Taldeak demokratikoki hartutako erabakiak onartzea.
32. ...

### 3.3. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako laguntza mesedegarriak

Hemen biltzen diren laguntzak nahiko ezagunak dira hezkuntza praktikan nahiz eta erabilpena oso sistematikoa ez izan.

Jarraian aipatuko ditugu aplikaerrazak direnak:

1. *Giroa hobetzearen alde eskuhartzea*

Kontua da baldintza egokiak sortzea irakaskuntzaren bidea bigunagoa izan dadin. Adibidez, ikasleak gela barruan hurrenkera jakin batean antolatzea ikasleen arteko edo ikasle jakin baten eta besteen arteko elkarreragin positiboak izan daitezen.

2. *Laguntza fisikoak (ziztatzea)*

Ikasleak ekintza egiten duen bitartean guk geure eskuekin keinu bidez ikaslearen mugimenduak zuzentzen ditugu. laguntza hau izan daiteke:

- *Osoa.* Ekintzak irauten duen bitartean zuzentze lana egiten dugu.
- *Osagabea.* Ekintza zuzentzen dugu prozesuak irauten duen aldi batez bakarrik, edo prozesu honen alderdi jakinen batean.
- *Beste batzuk.*

3. *Ereduak eskaintzea*

Eguneroko bizitzan badira hainbat pertsona, batzuetan nahi gabe ere, baina ikasleendako eredu bilakatzen direnak: irakasleak, lagunak, zinemako, literaturako edo kiroleko pertsonaiak.

Ereduak modu zuzen eta planifikatu batez (role-playing, bideoak eta abar) eskaini daitezke hezkuntza egoeretan.

Hona hemen eredu batzuk:

- *Imitazioa:* Irakasleak edo beste pertsona batek ikaslearen aurrean egiten du eginbeharra; zer eta nola egiten den eredugarria izango da. Imitazio hau izan daiteke:
  - *Aldi berekoa*: Irakasleak eta ikasleak aldi berean egiten dutenean.
  - *Bata bestearen jarraian*: ekintzaren zati bat ereduz erakusten da, segidan ikasleak egingo du, ondoren beste zati baten eredua erakusten da eta gisa honetan erabat bukatu arte.
  - *Amaitu ondoren:* Ikasleak egingo du eginbeharra eredua osorik aurkeztu ondoren.
- *Adibidea:* Ikasleari produktu bat erabat edo zatika landua erakustea. Erakusten den ereduak irudikatuko du egitekoa dena bakarrik. Izan daiteke:
  - *Berdin-berdina:* Erakutsitako eredua bat dator erabat erdietsi nahi denarekin.
  - *Antzekoa:* Eredua eta ekintza antzekoak baina ez dira berdinak.
- *Beste eredu batzuk.*

4. *Ahozko, keinuzko edo idatzizko komunikazio laguntzak*

Ikasleei eskaintzen zaizkie elkarrizketaren, keinuen edo/eta idatzizko komunikazioen bidez. Izan daitezke:

– *Jarraipideak:* Ikasleari behar adina jarraipide ematen zaizkio eginbeharraren aurretik eta ondoren. Jarraipideen artean sailkapena egingo dugu:

  • *Aginduak:* Ikaslearen ekintza zuzentzen dugu agindu zehatzak eta errazak emanez keinuekin edo gabe. Izan daitezke:

    *Keinuekin osatua*: Garbi esango dugu zer eta nola nahi dugun ikasleak egitea, aginduarekin batera keinuak ere eginez.

    *Keinurik gabe*: Garbi esango dugu zer eta nola nahi dugun ikasleak egitea keinu lagungarririk eman gabe.

    *Amaiera:* Agindu jakin bat emanez eskatzen dugu ekintzaren bat egin dezatela.

  • *Azalpenezko jarraipideak (Jarraipideen eskuliburua)*: Ikaslea bideratzen dugu azalpenezko jarraipide zenbait emanez, eman beharreko pausuak eman ditzan.

    *Bata bestearen atzetik:* ekintza egin ahala ematen dira jarraipideak.

    *Aurretik:* Ematen ditugu jarraipide guztiak ekintza burutu aurretik.

– *Galderak eta esanak*: Orduan orduko galdera eta esan egokiak eginez zuzentzen dugu ekintza. Izan daitezke:

  • *Gogoetak:* Ikasleari galderak edo/eta komentario egokiak eginez mugiarazten eta laguntzen zaio dena delako ekintza egitera.

  • *Gogoragarriak:* Galdera eta komentarioak eginez laguntzen diegu ekintza egiteko behar diren hainbat gauza gogora ekartzen.

– *Iradokizunak:* Ekintza egin aurretik edo egin bitartean ikasleei hainbat iradokizun edo proposamen alternatibo ematen zaizkie.

– *Beste komunikazio mota batzuk.*

5. *Material lagungarriak ematea. (Erraztasunak emateko)*

Laguntza honen helburua ikaslearen ikasbidea errazteko material mesedegarriak ematea da. Material hauek izan daitezke:

– *Manipulagarriak:* Eginbeharra egiteko erraztasunak ematen ditu.
– *Ikus-materialak:* (marrazkiak, argazkiak...) lagungarriak ematen dituztenak identifikagaia identifikatzeko, iradokizunak egiteko.
– *Teknologikoak:* Eginbeharra egiteko erraztasunak ematen dituzten tresnak edo gailuak.
– *Beste batzuk.*

6. *Prozesua aldatzea*

Laguntza honen xedea eginbeharren egikera aldatzea da, honetarako eginbeharraren zati bat ereduz erakusten da edo azken emaitza nolakoa izango den erakusten da.

– *Zatika burutu*: Ikasleari eskatzen diogu eginbeharraren zati bat edo batzuk egiteko. Gainontzekoa burutua emango zaio edo irakasleak edo beste ikasle batek osatuko du.
– *Aurkezpen sekuentziatua*: Ikasleari eginbeharra egiten duen neurrian zatiz zati egin dezala eskatzen diogu eta ez zaio jakinarazten azken urratseraino erdietsi beharreko produktua.
– *Beste aldaketa batzuk.*

7. *Portaera aldatzeko tekniketan oinarritutako laguntzak*

– *Indargarriak:* Laguntza honek helburu du eginbeharra egin aurretik eta bitartean indargarri psikologiko-afektiboak ematea, orduan orduko zailtasunak gainditzeko beharrezkoak direnak:
  • *Laudorioak:* Momentu egokietan komentario edo keinu afektiboak ematea oniritzia edo animuak emateko.
  • *Atzera gogoeta egitea*: Eginbeharra egin aurretik, bitartean eta ondoren lehen egindako lanei buruz edo gaindituta edo gainditzeko bidean dauden zailtasunei buruzko konparazioak egitea, aurrerapenak nabarmentzea...
  • *Itxaropenak:* Helburua da komentarioak egitea eginbeharrarekiko itxaropenak indartzeko.
  • *Beste indargarri batzuk.*
– *Pausoz pausoko teknika (egokitzea)*: Kontua da indargarri positiboekin saritzea eginbeharra egiten gertatzen diren aurrerapen txikiengatik edo ematen diren ikasiengatik.
– *Kateatzea:* Helburua da eginbehar partzialak eta errazak kateatzea beste eginbehar konplexuagoan, eta horrela, aurreko urrats

batean arrakasta izateak indargarria eta motibazioa dakar hurrengo urratsari begira. Izan daiteke:

- *Aurrerakako kateatzea*: Ikaskuntza planteatzen da eginbehar partzialen hurrenkera naturalari jarraiki..
- *Atzerakako kateatzea*: Batzuetan ikaskuntza kateatua atzekoz aurrera planteatzen dugu erdietsi nahi den eginbeharra erreferentziatzat hartuta. Eskuarki, ahaleginduko gara arrakastak eskuratzen eginbeharren egite prozesuan. Gisa honetan, adibidez, ohea egiteko irakaskuntzari dagokionez, ekintza honen pausu guztiak zerrendatu ondoren azken pausotik (ohazala hedatzea) aurrera hasiko ginateke; pausu hau ikasi ondoren, aurreko pausua planteatuko genuke (ohazala mahai gainean jartzea) eta era honetan atzeraka aurreikusitako helburua eskuratu arte.

Batzuetan egokitzapen eta kateatze ezberdinak erabiltzen dira aldi berean, modu honetan, prozedurarekin bat egiteraino iritsiz.

8. *Ikasi beharrekoa ikasteko eta autokontrolatzeko teknikak (teknika kognitiboak) barneratzea*

– *Arazo egoerak*: Ikaslea jartzen dugu arazo egoera txiki batzuen aurrean, bere ezaugarrietara eta ahalmenetara egokituak, eta hauei soluziobidea ematea lagungarria da eskuartean duen ikaskuntza konprenitzeko eta orokortzeko.

– *Urratsak eta jarraipideak*: Ikaskuntza jakin baten aurrean ikasleari jarraipideen eskuliburua ematen zaio, ikaskuntza hori kontrola eta ezagutu dezan.

## 3.4. Lan plangintza unitate berariazkoan eta integrazio arloetan

### Lan plangintza unitate berariazkoan

| *Ikaslea:* | | *Esparrua:* | |
|---|---|---|---|
| Unitate didaktikoa/ Eduki blokea | Jarduerak | Material, metodologia... baliabideak | Ebaluazio irizpideak |
| Denboralizazioa | | | |
| Unitate didaktikoa/ Eduki blokea | Jarduerak | Material, metodologia... baliabideak | Ebaluazio irizpideak |
| Denboralizazioa | | | |
| Unitate didaktikoa/ Eduki blokea | Jarduerak | Material, metodologia... baliabideak | Ebaluazio irizpideak |
| Denboralizazioa | | | |

## Lan plangintza integrazio arloetan

| *Ikaslea:* | *Integraziopeko arloa:* | *Kursoa:* | *Arloko irakaslea:* |
| --- | --- | --- | --- |
| Koordinazio aldia<br>Noiztik______ Nora ______ | U. didaktikoaren helburu/ edukien egokitzapena | Materialen egokitzapena | Integrazioaren helburu berariazkoak |
| Unitate didaktikoa | | | |
| Koordinazio aldia<br>Noiztik______ Nora ______ | U. didaktikoaren helburu/ edukien egokitzapena | Materialen egokitzapena | Integrazioaren helburu berariazkoak |
| Unitate didaktikoa | | | |
| Koordinazio aldia<br>Noiztik______ Nora ______ | U. didaktikoaren helburu/ edukien egokitzapena | Materialen egokitzapena | Integrazioaren helburu berariazkoak |
| Unitate didaktikoa | | | |

### 3.5. Etengabeko ebaluazioa eta ebaluazio orokorra erregistratzeko ereduak

# ETENBAGEKO EBALUAZIOA
## Esparrua

Ikaslea: ______________________________

Unitate berariazkoa: __________ Erreferentzi taldea: __________

## Etengabeko ebaluazioaren fitxa

| Unitatea | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |

E = Erdietsi. EG = Erdietsi gabe. AL (...) = Aurrerapena laguntzaz baliatuta...

# ETENBAGEKO OROKORRA
## Esparrua

Ikaslea: ____________________________________________

Unitate berariazkoa: ___________ Erreferentzi taldea: ____________

## Ebaluazio fitxa orokorra

| Unitatea: | | Laguntzak/Oharpenak | |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

E = Erdietsi.  Eg = Erdietsi gabe. Al (...) = Aurrerapena laguntzaz baliatuta... H = Hasiera.  Az = Azkena. LE... = 1. Ebaluazioa...

## 4. IKASLEZ IKASLEKO EGOKITZAPENEN ADIBIDEAK

Unitate berariazkoan eskolatzekoak diren bi ikasleren curriculum egokitzapena nola prestatu adibide bana azaltzen da.

Lehenengo adibidean Xabier ikaslearen curriculum egokitzapenaren adibidea azaltzen da. Xabierrek 13 urte ditu eta Bigarren Hezkuntzako Institutu bateko Unitate Berariazko baten barruan dago, eta bere erreferentzi taldea DBHko lehen ziklokoa da eta bere curriculum maila Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. Mailari dagokio. Unitate Berariazko honetan dauden 12-14 urteetako ikasleen curriculumak helburu du ikasle hauek lehen hezkuntzan eskuratutako gaitasunak indartzea eta garatzea, bai eta integrazio gaitasunak eta gizarte-elkarreraginak garatzea.

Bigarren adibidean Ana ikaslearen curriculum egokitzapenaren adibidea azaltzen da. Anak 14-15 urte ditu eta ikastetxe itundu batean dago, eta bere erreferentzi taldea DBHko bigarren Ziklokoa da eta bere curriculum maila lehen hezkuntzako 3. eta 4. Mailari dagokiona da. Bere unitate berariazkoan garatutako curriculumak proiektu-metodologiaren ildotik jotzen du, era diziplinartekoan ikusita eta sukaldaritzako tailer baten inguruan hezurmamituta.

Bi ikasleen curriculum egokitzapenekin batera badira, halaber, lehen adibideari eragiten dion lan plangintzaren eredu bat, erreferentzi taldearekin, integraziopeko arlo bat lantzeko; eta bigarren adibideari eragiten dion lan plangintzaren beste eredu bat, unitate berariazkoan lantzeko.

# IKASLEZ IKASLEKO
# CURRICULUM EGOKITZAPENA

Ikaslea: *Xabier XY*

Unitate Berariazkoa: Errefer. tald.: *2. B*

Ikastetxea: *XXX*

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | DATUAK |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

**Ikaslearen datu pertsonalak.**

| | | |
|---|---|---|
| Jaiotza data: *10-12-1984* | Adina: *12* | Jaioterria: *XXX* |
| Amaren izena: *XXX* | Adina: *37* | Lanbidea: *XXX* |
| Aitaren izena: *XXX* | Adina: *35* | Lanbidea: *XXX* |
| Helbidea: *XXX* | | Telefonoa: *XXX* |
| Erreferentzi taldea (integrazioa): *2.º B* | Jaio hizkuntza: *Gaztelania* | Beste hizkuntza: *Euskara* |

Funtzioak eta konpromezuak*

| Profesional inplikatuak | Funtzioak | Sinadura | Koordinazio espazioak eta denborak |
|---|---|---|---|
| *F.O.* | *Pedag. Terap. eta Tutorea U.B. (PT)* | | <u>*Puntualak:*</u><br>*PT-Eusk: Kurtso hasieran.*<br><u>*Astero:*</u><br>*PT-Pl/TI: ostegunean, 3. Ordua (Plastika mintegian)*<br><u>*Hamabost egunero:*</u><br>*PT-Or: asteazken alternoetan, 4-5 (orientatzaileen bulegoan)*<br>*PT-Tut: asteazken alternoetan 4-5 (irakasle gelan)*<br>*PT-GH: ostiral alternoetan 4. ordua (irakasle gelan)*<br>*PT-Tek: ostiral alternoetan, 4. Ordua, (Irakasle gelan)*<br><u>*Hiru hilero:*</u><br>*Ebaluazio saioak* |
| *C.P.* | *Orientatzailea (Or)* | | |
| *S.R.* | *Erreferentzi taldeko tutorea (Tut)* | | |
| *R.C.* | *Gorputz Hezkuntza (GH)* | | |
| *K.S.* | *Euskara (Eusk)* | | |
| *C.P.* | *Plastiska (Pl)* | | |
| *P.M.* | *Teknologia (Tek)* | | |

* Orduan orduko erabakiak hartzen diren neurrian bete beharreko atala.

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 1/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

| **Eskola bizitzarako datu garrantzitsuak.** | |
|---|---|
| Beste profesional batzuen txostenetako datu garrantzitsuak (Baita diagnostikoa ere, balego)<br><br>*Osasuna:*<br><br>*Atake epileptikoak ditu, eta kontrolpean daude tratamendu bidez; tratamendua, berriz, pixkana-pixkana samurtzen ari zaio, eta aurreikuspena kentzea da.* | Eskolaldiaren historia:<br>Eskolatzeari buruzko datu garrantzitsuak<br><br>*«XX» Lehen Hezkuntzako Ikastetxean eskolatua egon zen lehenago, eta laguntza gelan dagoenetik erregulartasunez eskolaratu da bertara.*<br>*Lehen Hezkuntzan integratuta egon da, beti erreferentzi talde berberarekin eta bere gogobetetze maila altua izan da.*<br><br>*Joan den urtean institutura joan zen eta ez zuen egokitzapen arazo askorik izan.* |
| Familiaren ingurua:<br><br>– *2 anaiatatik gazteena.*<br>– *Familiaren laguntza normala.*<br>– *Amak depresioak ditu.* | Aurreko kurtsoko/zikloko/etapako datu garrantzitsuak.<br>(Antolaketa, edukiak, taldekatzeak, metodologia...)<br><br>*Lehen hezkuntzan:*<br>*Bere etorkizko ikastetxean ikaslez ikasleko laguntza jaso zuen Laguntza Gelaren barruan, astean 5 orduz Hizkuntzako eta Matematikako edukiak (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. Mailari zegozkionak)landuz. Gainontzeko arloetan curriculum egokitzapen oso esanguratsuak egin ziren, ingelesean izan ezik, non laguntza gelan prestaturiko hizkuntz materialak landu ziren.*<br><br>*Aurreko kurtsoan:*<br>*Gela berariazkoan egon zen, logika/matematika eta komunikazio arloko edukiak eta helburuak landuz eta arlo tekniko-manipulatiboetan eta psikomotrizitate arloan integratuta.* |

| CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK | HASIERA EBALUAZIOA 2/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

**Eskola bizitzarako datu garrantzitsuak.**

| | |
|---|---|
| Profil pertsonala:<br>Bere buruaren balioespena (Autokontzeptua, autoestimua, espektatibak...) | Pertsona autonomiako azturak<br><br>*Ikastetxearen barruan autonomiaz mugitzen da, baina mandatuak egitea kostatzen zaio lotsatia delako.*<br><br>*Gaur egun autonomia du Gorputz Hezkuntzaren ondoren dutxa hartzeko, norbaitek tenperatura graduatzen badio.* |
| Besteekiko afektu eta harreman alderdiak (ikaskideak, irakasleak)<br><br>*Ikastetxean ospetsua da. Bere ikasgelako ikaskideengandik urrunduz joan da hauek hazi diren neurrian..* | |
| Nortasunaren alderdi garrantzitsuak | Arauak ulertzea, onartzea eta betetzea<br><br>*Nahiko ongi, azken kurtsoetan dezente aurreratu du. Arauak zuzen betetzen ditu salbuespenak badira ere, esaterako, lotsagatik mandatuak egiteari ezetz esaten dionean.* |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 3/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

**Gaitasunen baliioztapen orokorra**

| | |
|---|---|
| Gizarte-natura esparrua<br><br>– *Lehen Hezkuntzako 3. ikasmailari dagokion maila*<br>– *Interesatzen zaizkion hainbat gaiez asko daki (animaliak, perretxikoak...)* | Komunikazio esparrua<br><br>– *Lehen hezkuntzako lehen zikloari dagokion maila*<br>• *Oinarri-oinarrizko irakurketa-idazketa.*<br>• *Ahozko mezu errazak nahiko garbi ulertzen eta sortzen ditu.*<br>• *Elkarrizketak hastea kostatzen zaio, baina badaki aurrera egiten hasi ondoren.*<br>• *Idazlan eta deskripzio errazak egiten ditu* |
| Logika-Matematika esparrua<br><br>– *Lehen Hezkuntzako lehen zikloari dagokion maila*<br>• *Irakurtzen eta idazten ditu zenbakiak 999raino zenbait huts eginez.*<br>• *Batuketak eta kenketak «llebada»rekin.*<br>• *Biderketa kontzeptua oraindik ez du hausnartu.*<br>• *Problema erraz, eragiketa bakarrekoak ebazten ditu* | Psikomotrizitate esparrua<br><br>– *Zenbait alderditan (indarra, erresistentzia, abiadura...) maila nahikoa erakusten du, beste batzuetan (oreka, koordinazioa), berriz, traketsagoa da* |
| Arte-Teknologia esparrua<br><br>– *Lantresna eta material franko erabiltzen ditu egoki.*<br>– *Bat-bateko produkzioak urriak dira. Gidaritzapeko produkzioak dezente hobeak dira.* | Oharpenak eta beste datu interesgarri batzuk |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 4/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

| **Motibazioa, interesak eta ikas-estiloa** | |
|---|---|
| Motibazioa:<br>– *Motibatu egiten dute bere buruarentzat baliagarri ikusten dituen jarduerek.* | Erreakzioak zailtasunen aurrean<br>– *Ez du eskuarki laguntzarik eskatzen. Ia beti zain egoten da ea noiz galdetzen dioten aurrera ez egiteko arrazoiaz.* |
| Esparru, eduki eta jarduera lehentasunak:<br>– *Ez du lehentasunik adierazten.*<br>– *Jarduera ezagunak nahiago ditu.* | Lan azturak:<br>– *Eginbeharrekoa menderatzen badu autonomoa izaten da.*<br>– *Oso arduragabea da materialarekin, gauza guztiak galtzen ditu eta.* |
| Zaletasunak, gustuak:<br>– *Futbola gustatzen zaio, Barca batez ere.*<br>– *Modako musika entzutea atsegin du.* | Ikasteko estrategiak:<br>– *Ikaskuntza mekanikoa.*<br>– *Ikasteko estrategiak.* |
| Arreta jartzea:<br>– *Ligako jokalari guztien izenak buruz dakizki, baina mandatuak idatzi behar izaten ditu ez ahazteko.* | Jarrerak elkarlanean:<br>– *Lotsatia delako bere jarrera nahiko geldoa da, baina oso ongi parte hartzen du paper jakin bat duenean eta norbaitek bidea erakustean.* |
| Oroimena: | Errendimendua:<br>– *Errendimendu ezberdintasun txikiak daude jardueratik jarduerara.*<br>– *Oro har bukatzen ditu bere lanak.* |
| Beste gaitasun batzuk (sormena, abstrakzio gaitasuna, intuizioa): | Indargarriak:<br>– *Erreakzio onak ditu indargarri sozial eta afektiboen aurrean, bai eta bere lanei buruzko gorespenen aurrean ere.* |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 5/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

| **Eskola ingurua** | | |
|---|---|---|
| Giza baliabideak:<br><br>– *Pedagogia Terapeutikoko irakaslea.*<br>– *Praktiketako ikaslea.* | Espazioak: | Taldekatzeen egokitasunaren azterketa:<br><br>– *Unitate berariazkoaren taldeak 7 pertsona ditu, eta hauetako 3k badute 2.B erreferentzi taldetzat.*<br>– *Erreferentzi talde egokia, zeren eta ezagutzen baititu ikaskide batzuk lehen hezkuntzatik, eta ez baita oso talde gatazkatsua.*<br>– *Euskara taldea; ezberdina izan arren ikasle gutxi dauka, eta jaun eta jabe ikusten du bere burua.* |
| Material baliabideak:<br><br>– *Ikastetxeko material arruntak erabiltzen ditu.*<br>– *Ez du material berariazkorik eskatzen, baldin eta gela berariazkoan kurtso baxuagoetako material didaktiko anitz eta aberatsa badago. Baita kalkulagailua, benetako txanponak, joko didaktikoak... ere.* | Denboraren banaketa: | Aniztasunari aurre egiteko planak eragindako alderdi garrantzitsuak: |

| CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK | HASIERA EBALUAZIOA 6/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

| **Edukiak: Esparrua: PLASTIKA** | |
|---|---|
| Eduki garrantzitsuenen ebaluazioa (Ezagutzak..., Gai da:...) | Beharrezko laguntzak eta oharpenak |
| – *Inguruko elementu naturaletan eta artelanetan ageri diren zenbait ezaugarri plastiko antzematea (kolorea, forma, ukimena, neurria).*<br>– *Giza irudia ia osorik eta zehatz irudikatzea, baina beti posizio berean.*<br>– *Oso irudikapen plastiko errazak egitea zeinetan elementu garrantzitsuenak ondoko hauek diren: puntua, lerro mota batzuk, biribila, karratua, triangelua eta, azkenik, hauen guztien nahasketa.*<br>– *Lantresnak erabiltzea (lapitzak, errotuladoreak, argizariak, pintzelak...eta askotariko materialak, esaterako, paperak, oihalak, itsasgarriak...*<br>– *Plastikazko eta hitzezko elementuak (komikiak, kartelak, hormirudiak, argazki montaketak) koordinatzea oso era errazean.*<br>– *Ikaskideekin batera elkarlana egitea.* | – *Idazlanak egin ditzan, banaketa eta proportzioa esan behar zaizkio.*<br>– *Nahiago izaten du ereduekin bi dimentsiotan (ez errealak) lan egitea. Behin eta birritan egin ondoren automatizatzen ditu eta ereduen beharrik ez du.*<br>– *Pintzelaz ari denean gogorarazi behar zaio gehiago xukatu beharra duela. Ez daki konpasa erabiltzen. Erregelaren erabilera ez du menderatzen, zertxobait badaki ere.*<br>– *Pixka bat gidaritzapean.* |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | ERABAKIEN FITXA 1/4 |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

**Antolaketari buruzko erabakiak**

| *Taldekatzea* | *Esparruak/ irakasgaiak* | *Espazioak* | *Denbora* | *Profesional inplikatuak* | *Azalpena* |
|---|---|---|---|---|---|
| Unitate Berariazkoa | – *Matematika*<br>– *Hizkuntza*<br>– *Gizarte eta Natur Z.*<br>– *Gizarte trebetasunak*<br>– *Informatika* | – *Gela berariazkoa*<br>– “ ”<br>– “ ”<br>– *Berdin + natur guneak.*<br>– *Informatika gela* | *4 ordu*<br>*3 ordu*<br>*3 ordu*<br>*3 ordu*<br>*2 ordu* | – *Pedag. T.ko irakaslea*<br>– *Praktiketako ikasle bat batzuetan* | *Programa berariazkoa jarraitu beharra du, oso Curriculum Egokitzap. Esanguratsua eskatzen duena logika/matemati-ka eta komunikazio esparruetan, Unitate Berariazkoaren Curriculumean oinarrituza.* |
| Erreferentzi taldearekin (integrazioa) | – *G. Hezkun (2. B)*<br>– *Plastika (2.B)*<br>– *Asmakuntzen tailerra (2. B)*<br>– *Teknologia (2. B)*<br>– *Tutoretza (2. B)* | – *Gimnasioa/Gela*<br>– *Plastika gela*<br>– “ ”<br>– *Teknologia gela*<br>– *Gela 2. B* | *2 ordu*<br>*3 ordu*<br>*3 ordu*<br>*3 ordu*<br>*1 ordu* | – *Dagokion arloko irakaslea. Plastikan eta Asmakuntzen Tailerrean irakasle bera.*<br>– *G. Hezkuntzan eta Plastikan praktiketako ikasle bat.* | *Helburua: gizarte integrazioa arlo tekniko manipulatiboetan eta hain esanguratsuak ez diren curriculum egokitzapenetan. Taldeak ongi hartzen du. Ordutegiaren antolaketa errazten du, Unit. Berariazkoan beste ikaskide batzuekin batera egiten duelako.* |
| Ikaslez ikasle | | | | | *Ez du premia berariazkorik, beraz, ez du banan-banako laguntzarik eskatzen giro isolatuan egoteagatik.* |
| Beste taldekatze batzuk (zeintzuk) | – *Euskara* | – *Gela 2. A* | *3 ordu* | – *Ikaslez ikasle.* | *Euskara maila nahikoa du, bere familiakide batzuekin hitz egiten du eskuarki.*<br>*Bere burua seguru ikustean bere autoestimua altuagoa da.* |

**CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** ERABAKIEN FITXA 2/4

Ikaslea: *Xabier XY* Data: 1997ko urria

**Curriculumaren oinarrizko elementuak. Esparrua: ______________________**

| Helburu/Eduki/Ebaluazio irizpide egokituak (jakingo du egiten..., gai izango da...) | Metodologia eta laguntzak |
|---|---|
| *2. bloketik: Ikus hizkuntza*<br>– *Oinarrizko koloreak aipatzea.*<br>– *Jarraipide idatziei jarraitzea koloreak behar bezala nahasiz oinarrizkoen ondorengo bigarren eta hirugarren mailako koloreak lortzeko.*<br>– *Ahozko jarraipideei jarraitzea, koloreak behar bezala nahasiz kolore gamak lortzeko.*<br>– *Kolorearen efektu sinboliko eta sozial batzuk ezagutzea (dolumina, sutsua izatea,, garbitasuna...).*<br>– *Planozko eta bolumenezko irudipenak ezberdintzea.*<br>– *Ingurune natural eta artifizialeko forma errazak ezberdintzea.*<br>– *Ahozko jarraipideei jarraituz norberak sortzea.*<br>– *Laminetan fondoa eta forma bereiztea.*<br>– *Testura ezberdinekin collage egitea, teknika ezberdinak erabiliz (grapatzea, itsastea,...)*<br>– *Ezagutzea entzutez besterik ez bada ere hitz hauen esanahia: oinarrizko kolorea, bigarren mailako kolorea, hirugarren mailako kolorea, collagea, testura, fondoa, planoa, bolumena (espaziala), kolore gama.*<br>– *Norberaren eta besteen sortzelanak balioestea.* | *Mahai batean 2. mailako 5 ikaskidere-kin lan egingo du. Praktiketako irakasleak lagundu egingo dio bereziki ahozko jarraipideak ematerakoan, ondoren berea egiten autonomoki jarraituko du orduan orduko irakaslearen eta mahaikideen laguntzarekin (praktiketako irakasleak lagunduko dio motore arazo handiagoak dituen beste ikasleren bati).*<br><br>*Koordinazio saioetan arloko irakasleak eta Pedagogia Terapeutikokoak materiala prestatuko dute curriculum egokitzapena errazteko eta ikasleak arrakasta izan dezan helburu/eduki egokituak lortzeko bideetan (Bere ikaskideek beraiek prestatuko dute).* |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | ERABAKIEN FITXA 3/4 |
|---|---|
| Ikaslea: *Xabier XY* | Data: 1997ko urria |

| **Integrazio irakasgaiak** | |
|---|---|
| Integrazio helburuak (Irakasgai guztietan komunak)* | Oharpenak: |
| – *Ohiko eta beharrezko materialarekin eskolara joatea.*<br>– *Beste eskola egun batzuetan zer material eskatu hura eskolaratu.*<br>– *Materiala biltzea eta, behar izanez gero, garbiketa egiten laguntzea.*<br>– *Materiala ikaskideekin partitzea.*<br>– *Eskolara sartzeko eta ateratzeko puntuala izatea.*<br>– *Irakasleari baimena eskatzea (unitate berariazkoan material ahaztua hartzeko, komunera joateko...)*<br>– *Ikasgelako arauak ezagutzea.*<br>– *Nork bere irakasleari eta ikaskideei laguntza eskatzea.*<br>– *Nahiak, iritziak eta asmoak komunikatzea bai talde txikian bai ikaskide guztien aurrean.*<br>– *Bere ikaskideen izenak ezagutzea eta erabiltzea.*<br>– *Taldekako jardueretan naturaltasunez parte hartzea.*<br>– *Lagunarteko harremanetan giro egoki eta atsegina lortzea.* | *Hainbeste material-gauza galtzen dituenez, erabaki da eskolaldia amaitutakoan berrikustea zer galdu den eta biharamunerako berriro ekartzea.*<br><br>*«Agurrak eta eskaerak» nola egin programa bat abian dago bat-bateko elkarreraginak hobetzeko.*<br><br>*Familiaren laguntza eskatu da kontu honetan.* |

**CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** ERABAKIEN FITXA 4/4

Ikaslea: *Xabier XY* Data: 1997ko urria

**Alderdi garrantzitsuak, familiaren laguntzari dagokionez**

| *Aldia* | *Helburuak* | *Familiaren konpromezuak* | *B.H.I.ren konpromezuak* | *Ikaslearen konpromezua* | *Koordinazioa Berrikuspena* |
|---|---|---|---|---|---|
| *Lehen hiruhilekoa* | *Bat-bateko elkarreraginak hobetzea (galdetzeko lotsa galtzea, eskatzea, elkarrizketak hastea)* | *Lehen hiruhileko honetan egunero mandatuak egin beharko ditu (egunkaria, ogia, denda...). Lagunduta joango da baina berak eskatuko ditu.*<br><br>*Astean behin gutxienez telefonoz deituko dio lagun edo familiakideren bati.* | *Ikasleari ematea aplikatu behar zaion programaren berri.*<br><br>*Ikasgela barruko mandatuak ikastetxean barna egitea (idazkaritza, irakasleei eta ikasleei abisuak ematea, fotokopiagailura joatea), hasieran lagunduta, baina berak eskatuz.* | *Programaren aplikazioa egitean jarrera ona agertuz, bai etxean eta bai institutuan ezartzen zaizkion mandatuak eginez.* | *Hiruhilekoa amaitutakoan, gurasoak, irakasleak eta ikasleak, batera, bilduz.* |

## Lan plangintza integrazio arloetan

| *Ikaslea: Xabier XY* | *Integraziopeko arloa: Plastika* | *Kursoa: 2. B* | *Arloko irakaslea: C.P.* |
|---|---|---|---|
| Koordinazio aldia<br><br>Azaroaren 3tik 7ra<br><br>Unitate didaktikoa<br><br>*«Ikus-hizkuntza: Kolorearen teoria»* | U. didaktikoaren helburu/ edukien egokitzapena<br>– *Oinarrizko koloreak aipatzea.*<br>– *Oinarrizkoen ondorengo bigarren eta hirugarren mailako kolorea-klortzeko nahasketak egitea.*<br>– *Kolore gamak sortzea.*<br>– *Kolorearen ezaugarriak eta efektuak.* | Materialen egokitzapena<br>– *Irudi geometrikoz osaturiko orria, non, irudiak marraztuta, intersekzioa osatzen duten; adierazten da, halaber, zein koloretan margotu behar duten.*<br>– *Bost gelaskako zutabea duen orrialdea, kolore bat txuri/beltza gehiago/gutxiagorekin nahasteko, kolore gama lortzeko.* | Integrazioaren helburu berariazkoak<br>– *Eskola hasieran puntuala izatea.*<br>– *Beste eskola egun batzuetan zer material eskatu hura eskolaratu (pintzela, zapia eta pinturak) ekartzea.*<br>– *Bere mahaikideen izenak ezagutzea eta erabiltzea.* |
| Koordinazio aldia<br><br>Azaroaren 3tik 7ra<br><br>Unitate didaktikoa<br><br>*«Ikus-hizkuntza: Formak»* | U. didaktikoaren helburu/ edukien egokitzapena<br>– *Ingurune natural eta artifizialeko forma errazak ezberdintzea.*<br>– *Planozko eta bolumenezko irudipenak ezberdintzea.*<br>– *Laminetan fondoa eta forma bereiztea.* | Materialen egokitzapena<br>– *Hiru dimentsioko gauzakiak eramatea, eta hauen planozko irudikapena egitea, honela, ikasprozesuari ekiteko.*<br>– *Orri bat, helburu honetarako: ingurune artifizial eta naturalean ikusten dituen forma errazak idazteko*<br>– *Fondo/forma bitxiak dituzten laminak, egoki kalkulatuak eta margotuak izan daitezen.* | Integrazioaren helburu berariazkoak<br>– *Ohiko eta beharrezko materialarekin eskolara joatea.*<br>– *Irakasleari gutxienez galdera bat egitea eman dituen azalpenei buruz* |
| Koordinazio aldia<br><br>Azaroaren 3tik 7ra<br><br>Unitate didaktikoa<br><br>*«Ikus-hizkuntza: Collage»* | U. didaktikoaren helburu/ edukien egokitzapena<br>– *Nork bere konposizioak egitea, hitzezko jarraipideei jarraituz.*<br>– *Testura ezberdinekin Collage bat egitea, lotura-teknika ezberdinak erabiliz (grapatzea, itsastea)*<br>– *Norberaren eta besteen sortzelanak balioestea.* | Materialen egokitzapena<br>– *Collagearen elementuen «plantilak» emango dizkiegu, orrian barna banatu ditzan eta siluetak marka ditzan.*<br>– *Plantilak erabiliko ditu testura ezberdinak markatzeko eta.* | Integrazioaren helburu berariazkoak<br>– *Beste eskola egun batzuetan zer material eskatu hura eskolaratu.*<br>– *Materiala ikaskideekin partitzea*<br>– *Talde txikian komunikatzea.* |

# IKASLEZ IKASLEKO CURRICULUM EGOKITZAPENA

Ikaslea: *Ana XX*

Unitate berariazkoa: Erreferentzi taldea: *3. A*

Ikastetxea: *XYX*

**CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** DATUAK

Ikaslea: *Ana XY* Data: 1997ko urria

**Ikaslearen datu pertsonalak.**

| | | |
|---|---|---|
| Jaiotza data: *16-10-1983* | Adina: *14* | Jaioterria: *XXX* |
| Amaren izena: *XXX* | Adina: *39* | Lanbidea: *XXX* |
| Aitaren izena: *XXX* | Adina: *34* | Lanbidea: *XXX* |
| Helbidea: *XXX* | | Telefonoa: *XXX* |
| Erreferentzi taldea (integrazioa): *3.º A* | Jaio hizkuntza: | Beste hizkuntza: |

Funtzioak eta konpromezuak*

| Profesional inplikatuak | Funtzioak | Sinadura | Koordinazio espazioak eta denborak |
|---|---|---|---|
| *D.P.* | *Pedag. Terap. eta Tutorea U.B. (PT)* | | <u>*Hamabost egunero:*</u><br>*PT-Or-Pl/Tut: 2., 4., Asteazk. 4-5. Orientabide bulegoan*<br><u>*Hilero:*</u><br>*PT- Inf : Hileko lehen asteazken. 4-5. (Irakasle gelan)*<br>*PT-Mus: Hileko hirugarren asteazken. 4-5. (Irakasle gelan)*<br>*PT-Erl: Hileko lehen ostegunean. 4. ordua. (Irakasle gelan)*<br>*PT-GH: Hileko 2. ostegunean. 4. ordua (Irakasle gelan)*<br><u>*Hiru hilero:*</u><br>*Ebaluazio saioak Irakasle gelan)* |
| *R.D.V.* | *Orientatzailea (Or)* | | |
| *M.L.* | *Plastika eta Tutor. erref. tal. (Pl/Tut)* | | |
| *B.P.* | *Gorputz Hezkuntza (GH)* | | |
| *P.S.* | *Erlijioa (Erl)* | | |
| *S.B.* | *Musika (Mus)* | | |
| *C.G.* | *Informatika (Inf)* | | |

* Orduan orduko erabakiak hartzen diren neurrian bete beharreko atala.

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 1/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

| **Eskola bizitzarako datu garrantzitsuak.** | |
|---|---|
| Beste profesional batzuen txostenetako datu garrantzitsuak (Baita diagnostikoa ere, balego)<br><br>*Diagnostikoa:*<br><br>– *Adimen urritasun arina. WISC: CI guztira 68. Azken baliotzapena 1995eko ekainean.* | Eskolaldiaren historia:<br>Eskolatzeari buruzko datu garrantzitsuak<br><br>– *Haur Hezkuntzatik eskolatua gure ikastetxean.*<br>– *Bere eskolaldian zehar laguntza espezializatua hartu du.*<br>– *Lehen Hezkuntzan portaera disruptibo larriak agertu zituen eta portaera aldatzeko programa baten (dokumentazioarekin batera doana) bidez sendatu zen.* |
| Familiaren ingurua:<br><br>– *Bi ahizpatatik bigarrena.*<br>– *Kultur maila eskasa.*<br>– *Gurasoek ez dituzte beti ulertzen ematen zaizkien informazioak.* | Aurreko kurtsoko/zikloko/etapako datu garrantzitsuak.<br>(Antolaketa, edukiak, taldekatzeak, metodologia...)<br><br>*DBHko lehen zikloan ondoko hauetan integratuta egon zen: Gorputz Hezkuntzan, Erlijioan, Musikan (1.), Plastikan (2.), Teknologian, Natur Zientzietan, Gizarte Zientzietan eta Ipuin Tailerrean, guztira 19 ordu. Eta beste gainerako orduak (11 ordu) Unitate Berariazkoan: Lehen Hezkuntzakoak diren Hizkuntza eta Matematika ezagutzak eta trebetasunak lantzen* |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 2/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

| **Eskola bizitzarako datu garrantzitsuak.** | |
|---|---|
| Profil pertsonala:<br>Bere buruaren balioespena (Autokontzeptua, autoestimua, espektatibak...)<br>– *Bere buruarekin segurtasun gutxi.*<br>– *Bere ahalmenetan konfidantza gutxi (bera egiteko gauza bada ere, laguntza eskatzen du zenbait lanetan)* | Pertsona autonomiako azturak<br>– *Bere pertsona eta gizarte autonomia nahikoa da. Laguntza eskatzeko gai da behar duenean.* |
| Besteekiko afektu eta harreman alderdiak (ikaskideak, irakasleak)<br>– *Oso lagunartekoa da. Taldekako jarduuretan parte hartzea atsegin du, bai eskola, bai gizarte, bai jai giroko jardueretan.* | Arauak ulertzea, onartzea eta betetzea<br>*Nahikoa.* |
| Nortasunaren alderdi garrantzitsuak<br>– *Atsegina.*<br>– *Gidaritzapeko lanetan beti prest.* | |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 3/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

| **Gaitasunen baliioztapen orokorra** | |
|---|---|
| Gizarte-natura esparrua<br><br>– *Kultur informazio urria bai Gizarte arloan bai Natur arloan, eskolan ikasitakoa besterik ez.*<br>– *Lehen Hezkuntzako edukiak arazo askorik gabe hausnartzen ditu, eduki berriak, berriz, partzialki hausnartzen ditu.* | Komunikazio esparrua<br><br>– *Bere maila orokorra Lehen Hezkuntzako 3. Mailaren parekoa da.*<br>– *Ahozko hizkuntza nahiko urria hiztegiaren aldetik; esaldi errazak eta maiz makulu hitzak.*<br>– *Irakurketa esanguratsu nahikoa testu errazak direnean.*<br>– *Oso idazlan erraz eta laburrak egiten ditu, han-hemenka ortografi akatsekin.* |
| Logika-Matematika esparrua<br><br>– *Maila mekanikoari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 4. Mailaren parekoa da: oinarrizko eragiketak menderatzen baditu ere, ulermenari eta arrazoibide logiko-matematikoari dagokionez huts egiten du).* | Psikomotrizitate esparrua<br><br>– *Gorputz Hezkuntzako eskoletan ongi moldatzen da egokitzapen berezirik gabe. Teorikoetan, aldiz, ulermen eta ikas-arazoak ditu* |
| Arte-Teknologia esparrua<br><br>– *Bere arte adierazpena Lehen Hezkuntzako 1. Zikloari dagokiona da gutxi gora-behera.*<br>– *Iaioa da lantresnak erabiltzen baina ez da oso disdiratsua lanak borobiltzen (traketsa).*<br>– *Gidaritzapeko lanak nahiago ditu, marrazketan izan ezik, marrazteko erraztasuna baitu.* | Oharpenak eta beste datu interesgarri batzuk |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 4/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

| **Motibazioa, interesak eta ikas-estiloa** | |
|---|---|
| Motibazioa:<br>– *Motibatzen dute besteen aurrean erakusgarriak diren jarduerek edo gizarte mailan jasotzat jotzen direnek.* | Erreakzioak zailtasunen aurrean<br>– *Jarrera nahiko txarra etsipenaren aurrean. Antsietatea.*<br>– *Zailtasunen aurrean edo blokeatzen da edo eginbeharrari uko egiten dio edo antsietatez jokatzen du. (Lehen Hezkuntzan oso denboraldi agresiboa izan zuen)* |
| Esparru, eduki eta jarduera lehentasunak:<br>– *Oso ilusionatuta dago sukaldaritza tailerrean parte hartzeko ideiarekin.*<br>– *Jarduera ezagunak nahiago ditu. Kostata onartzen ditu jarduera berriak, erabateko gidaritzapekoak ez badira edo oso atsegin ez baditu.* | Lan azturak:<br>– *Lanen borobiltzea eta aurkezpena ez ditu zaintzen. Materialarekin ere axolagabea da.*<br>– *Lanak hasterakoan eta lan berriei ekiterakoan inpultsiboa eta burugabea da.* |
| Zaletasunak, gustuak:<br>– *Adinarekin eta momentuko modarekin bat datozen zaletasunak eta gustuak ditu.* | Ikasteko estrategiak:<br>– *Buruz mekanikoki ikasteko joera, gogoeta egin gabe eta erlazionatu gabe.*<br>– *Ez du beti bere ikas-gabezien kontzientziarik.*<br>– *Orokortzea kostata egiten du.* |
| Arreta jartzea:<br>– *Arreta maila nahikoa.* | Jarrerak elkarlanean:<br>– *Lankidetza zalea. Elkarlana maite du, batez ere, menperatzen dituen lanak egitean.* |
| Oroimena:<br>– *Ezagutza berriei eustea nekeza egiten zaio. Hainbeste landu ez dituen ezagutzak erraz ahazteko joera.* | Errendimendua:<br>– *Mekanikari dagokionez errendimendu ona, baina eskasa edo oso eskasa kontzeptuen alderdiari dagokionez, irakasgaiaren edo gaiaren arabera.*<br>– *Oro har, bere eginbeharrak amaitzen ditu.* |
| Beste gaitasun batzuk (sormena, abstrakzio gaitasuna, intuizioa):<br>– *Abstrakzio maila txikia.*<br>– *Sormen pixka bat agertzen du jarduera artistiko/manipulatiboetan. Laguntza manipulatiboaren beharra du asimilatzeko.* | Indargarriak:<br>– *Jarduera berrien aurrean laguntzak behar izaten ditu, ahozkoak, batez ere; laguntza hauen helburua ikasleari bidea erakustea, eginbeharra egituratzea eta segurtasuna ematea da.* |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 5/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

**Eskola ingurua**

| Giza baliabideak: | Espazioak: | Taldekatzeen egokitasunaren azterketa: |
|---|---|---|
| – *Pedagogia Terapeutikoko irakaslea.*<br>– *Arloko irakaslea (integrazioa).* | – *Espazioei dagokienez ez du egokitzapenik behar.* | – *Unitate Berariazkoan 14/15 urteko beste 4 ikaslerekin batera dago; sukaldaritza tailerraren curriculumak interesgaia du ondoko esparruetan: komunikazioan, logika-matematikan eta gizarte-naturan. Proiektu bidezko metodologia erabiltzen du.*<br>– *Erreferentzi taldea berbera da tailerreko 5 ikasleentzat, eta honek antolaketa errazten du. Ikastalde hau berbera izan da etapa osoan zehar, honengatik ikastalde horretan ongi begiratua dago.* |
| Material baliabideak: | Denboraren banaketa: | Aniztasunari aurre egiteko planak eragindako alderdi garrantzitsuak: |
| – *Oro har, Ikastetxeko ohikoak, eta bereziki, Unitate Berariazkoak eta Sukaldaritzako Tailerrekoak.* | – *Denboraren antolaketari dagokionez ez du egokitzapenik behar.* | |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | HASIERA EBALUAZIOA 6/6 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

| **Edukiak: Esparrua: PLASTIKA** | |
|---|---|
| Eduki garrantzitsuenen ebaluazioa (Ezagutzak..., Gai da:...) | Beharrezko laguntzak eta oharpenak |
| – *Zenbakiak zuzen irakurtzen eta idazten ditu sei zifretaraino.*<br>– *Diruaren balioa ezagutzen du. Txanponak eta bileteak zenbatu, konparatu eta aukeratu egiten ditu gehienez 5 zifrako kantitateekin.*<br>– *Lau eragiketak maila mekanikoan menderatzen ditu, bai paperean bai kalkulagailuz.*<br>– *Luzera, masa eta bolumen unitaterik ohikoenak ezagutzen eta erabiltzen ditu.*<br>– *Forma geometriko ohikoenak ezagutzen ditu planoan. Perimetro, radio, alde, altuera eta angelu kontzeptuak ezagutzen ditu. Angeluak konparatu, neurtu eta operatu egiten ditu, zenbaki osoekin bakarrik.*<br>– *Unitatea baino zatiki txikiagoak irudikatzen ditu.*<br>– *Inguruneko zenbait irudikapen grafiko oinarrizko eran eta zuzenki irakurri eta interpretatzen ditu (barra eta sektore bidezko diagramak).*<br>– *Problema errazak eta oso zuzenak ebazten ditu.* | – *Zifra gehiago dituzten zenbakiekin hutsak egiten ditu.*<br>– *Zailtasunak ditu itzuldirua buruz kalkulatzeko.*<br>– *Zatiketak egiten sarri nahaspilatzen da, zenbakiak zifra bat baino gehiagokoak direnean.*<br>– *Kalkulua buruz egiten zailtasun handiak ditu.*<br>– *Unitate ezberdinen arteko baliokideak kostata burutzen ditu. Ez dauka arazorik, baliokideen taula bisual batez baliatzen bada.*<br>– *Azalera eta gainazala kontzeptuak ez ditu bere egin.*<br>– *Izendatzaile komuneko zatikiekin lan egiten duen bakoitzean gogorarazi behar zaio oso erraz ahaztu egiten duelako. Izendatzaile ezberdineko zatikiekin ez daki lan egiten.*<br>– *Laguntzaren beharra izaten du arrazoibideari jarraitzeko bi eragiketa edo gehiago direnean.* |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | ERABAKIEN FITXA 1/4 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

**Antolaketari buruzko erabakiak**

| *Taldekatzea* | *Esparruak/ irakasgaiak* | *Espazioak* | *Denbora* | *Profesional inplikatuak* | *Azalpena* |
|---|---|---|---|---|---|
| Unitate Berariazkoa | – *Sukaldaritzako tailerra.*<br>– *Gizarte trebetasunak*<br>– *Hizkuntz esparrua.*<br>– *Logika-Matematika esparrua.*<br>– *Gizarte-Natura esparrua.* | – *Sukaldaritza tailerreko gela*<br>– *Espazio guztiak*<br>– *Unitate Berariazkoaren gela*<br>– *Id.*<br>– *Id.* | *6 ordu*<br>*4 ordu*<br>*3 ordu*<br>*3 ordu*<br>*2 ordu* | – *Pedagogia Terapeutikoko irakaslea* | *3.eko curriculumeko edukia nahiko zaila denez eta ikaslearen ahalmenetik urrun dagoenez, planteatzen da:*<br>– *Unitate Berariazkoan ikastordu gehiago (18 ordu) izatea, tailer motako metodologia erabiliz, dibersifikatze eta diziplinartekota- sun handiagoa.*<br>– *Gainerako orduak (12 ordu). Gizarte eta integrazio helburuak garatzeko posibilitate handiagoak dakartzaten irakasgaietan.* |
| Erreferentzi taldearekin (integrazioa) | – *Erlijioa*<br>– *Gorputz Hezkuntza*<br>– *Plastika*<br>– *Musika*<br>– *Informatika*<br>– *Tutoretza* | – *Aipatutako irakasgaien berezko espazioak* | *2 ordu*<br>*2 ordu*<br>*2 ordu*<br>*2 ordu*<br>*3 ordu*<br>*1 ordu* | | |
| Ikaslez ikasle | | | | | *Ez du ikaslez ikasleko inolako programaren beharrik.* |
| Beste taldekatze batzuk (zeintzuk) | | | | | |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | ERABAKIEN FITXA 2/4 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

**Curriculumaren oinarrizko elementuak. Esparrua:** ***Sukaldaritzako tailerra: Logika-Matematika esparrua***

| Helburu/Eduki/Ebaluazio irizpide egokituak (jakingo du egiten..., gai izango da...) | Metodologia eta laguntzak |
|---|---|
| *Blokea: «Erosketak egitea»*<br>*1. Kalitate-prezioa:*<br>*– Antzeko kalitatea eta kantitate berdina duten gauzakietan prezio ezberdinak alderatzea.*<br>*– Prezioak alderatzea, prezio borobilak aintzat hartuz (995 Ë 1000).*<br>*– Prezioa eta kantitatea asoziatzea.*<br>*– Antzeko kalitatea baina kantitate ezberdina duten gauzakietan prezioak alderatzea (kalkulagailua erabiliz)*<br>*2. Salmenta bereziak:*<br>*– % aplikatu ondoren, kalkulagailuaz baliatuta prezio berria ateratzea.*<br>*– Bi bakar baten prezioan bezalako salmentetan ikustea banaka zenbat balio duten eta ikustea, halaber, horiek biak enbase bakarrean zenbat balio duten.*<br>*3. Erosketak programatzea eta dirua aurreikustea:*<br>*– Erosketa zerrenda bat egitea, errezeta bat-edo prestatzeko, ondoko urratsak eginez:*<br>*• Beharrezko osagaien eta lantresnen zerrenda egitea.*<br>*• Eskura ditugun gauzakiak eta kantitateak aztertzea.*<br>*• Falta zaizkigun gauzakiak eta hauen kantitateak zerrendatzea.*<br>*– Prever el gasto a realizar basándonos en facturas, tikets de compras anteriores y/o folletos de propaganda.*<br>*4. Fakturak berrikustea*<br>*– Eragiketak egitea: biderketa, batuketa, BEZaren aplikazioa eta deskontuak egitea (% ak, gutxienez, kalkulagailuz egitea).* | *– Komunikazio esparruan bezalaxe, hemen ere diziplinarteko metodologia erabiliko da, eta ardatza sukaldaritzako tailerra izango da, eta ikastaldearekin interesgai batzuen inguruan lan egingo da: «sukaldea estreinatzen dugu», «Gabonak», «Ikasketa bidaia»...); interesgaiak ikasleentzako motibagarriak izango dira eta jarduera hezurmamituko dute.*<br>*– Ekintzak ikaslearentzat berriak direnean, ahozko laguntza emango zaio lanaren nondik norakoa bideratzeko, eginbeharrarekiko motibazioa eta bere buruarekiko konfidantza transmititzeko eta, azkenik, ematen dituen aurrerapausoak saritzeko. Laguntza hau kendu egingo zaio ikas-autonomoago den neurrian.* |

| CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK | ERABAKIEN FITXA 3/4 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

| **Integrazio irakasgaiak** | |
|---|---|
| Integrazio helburuak (Irakasgai guztietan komunak)* | Oharpenak: |
| – *Itxura eta gorpuzkera zaintzea.*<br>– *Ohiko eta beharrezko materialarekin eskolara joatea.*<br>– *Beste eskola egun batzuetan zer material eskatu hura eskolaratu.*<br>– *Ororen eta norberaren materiala zaintzea.*<br>– *Materiala biltzea eta behar izanez gero, garbiketa egiten laguntzea.*<br>– *Bakoitzaren mintza-txanda errespetatzea eta mintzaldiaren segida ez eragoztea.*<br>– *Orduan orduko eskakizunak (premiak eta nahiak) egitean, eskakizun horiek bete bitartean itxaron gaitasuna izatea, orduan orduko egoeraren arabera.*<br>– *Nahiak, iritziak, asmoak komunikatzea bai talde txikian bai ikaskide guztien aurrean.*<br>– *Beste ikaskideek axut egitekotan, egoki erantzutea.* | |

| **CURRICULUM EGOKITZAPENA DATUAK** | ERABAKIEN FITXA 4/4 |
|---|---|
| Ikaslea: *Ana XY* | Data: 1997ko urria |

**Alderdi garrantzitsuak, familiaren laguntzari dagokionez**

| *Aldia* | *Helburuak* | *Familiaren konpromezuak* | *B.H.I.ren konpromezuak* | *Ikaslearen konpromezua* | *Koordinazioa Berrikuspena* |
|---|---|---|---|---|---|
| *Ikasturte osoa* | – *Anaren konfidantza eta segurtasuna bere ikaskuntzetan bultzatzea.*<br>– *Bere gizarte edo/eta ikas harremanetarako mesedegarri izan daitezkeen Alderdi pertsonal batzuk hobetzea.* | – *Familiak Anari erakustea ikasten ari denarekiko interesa, ematen dituen aurrerapauso akademikoetan eta sozialetan.*<br>– *Etxetik ateratzen denean bere itxura/irudia hobetzeko jarraipena egitea eta jarraipideak ematea.*<br>– *Egunero egiaztatzea bezperan prestatzen duela eskolarako behar duen materiala, eta hala ez bada gogorarazi.* | – *Familiarekin batera aholkuak emango ditu eta koordinazio lanak egingo ditu lortzekoak diren helburuak lortzeko.* | – *Ikasleak parte hartuko du eskuratzekoak diren helburuak eskatzeko bidean.* | *Hiruhilero, ebaluazioekin batera, eta egoerak eskatzen duenean.* |

# Lan plangintza unitate berariazkoan

| *Ikaslea: Ana XX* | *Esparrua: Logika-Matematika* | | |
|---|---|---|---|
| Unitate didaktikoa/<br>Eduki blokea<br><br>*Interesgaia:*<br>*«Sukaldea estreinatzen dugu»*<br>*Blokea: «Erosketak egitea»* | Jarduerak<br><br>*– Sukaldeko oinarrizko tresnen eta elikagaien erosketa antolatzea:*<br>*– Taldeka erosketa-zerrenda bat prestatzea. (gidaritzapean).*<br>*– Egitekoa den gastuaren aurreikuspena egitea.*<br>*– Erosketa egitea.*<br>*– Faktura eta tiketa berrikustea.*<br>*– Azken gastua eta aurreikusita zegoena alderatzea.*<br>*– Desbideratutako gasturik balego, desbideratze nabarmenenak aztertzea.* | Material, metodologia... baliabideak<br><br>*– Zenbait dendatako propaganda-foiletoak.*<br>*– Faktura eta tiket zaharrak.*<br>*– Kalkulagailua.*<br>*– Taldeka aztertu eta eztabaidatzea.* | Ebaluazio irizpideak<br><br>*– Erosketa zerrenda beharretara egokituz prestatzea (beharrezko gauzakiak, zenbat, kantitatea).*<br>*– Gastu aurreikuspen nahiko zuzena izatea, azken gastuaren aldean.*<br>*– Faktura jakin batean (honetako prestatua) akatsak harrapatzeao.* |
| Denboralizazioa<br><br>*Urriaren 20tik 31rako hamabostaldia* | | | |
| Unitate didaktikoa/<br>Eduki blokea<br><br>*Interesgaia:*<br>*«Ikasketa bidaia»*<br>*Blokea: «Erosketak egitea»* | Jarduerak<br><br>*– Ikastetxean egiten den urteko jaian saltzeko ogitartekoak eta edariak prestatzea:*<br>*– Erosi beharreko osagaien zerrenda prestatzea.*<br>*– Beharrezkoa dena erostea, erositakoaren prezioa eta kalitatea kontuan hartuz (merkeago erostea, erdi kalitatea zainduz).*<br>*– Saltzeko prezioak jartzea, irabazia eta salmenta posiblea kontuan hartuz.*<br>*– Salmenta egin ondoren, azken kontuak egitea.* | Material, metodologia... baliabideak<br><br>*– Zenbait dendatako propaganda-folietoak.*<br>*– Faktura eta tiket zaharrak.*<br>*– Kalkulagailua.*<br>*– Erreferentzi taldeko ikasle bolondresen partaidetza (sosak guztiondako dira)*<br>*– Taldeka aztertu eta eztabaidatzea.* | Ebaluazio irizpideak<br><br>*– Kantitate batzuk eman ondoren, kantitateak binaka hartu eta ondoko zeinuak jartzea: >, <, ~*<br>*– Gauzaki baten prezio/alea kalkulatzea (zatiketa bakarra egin behar denean).*<br>*– Zenbait prezio/ale erosi ondoren, merkeena zein den ikustea.*<br>*– Bi bakar baten prezioan (2x1) eta biak enbase bakarrean bezalako salmentetan aurrezkirik badagoen eta, egotekotan, norainokoa den kalkulatzea.*<br>*– Erosketaren diru kalkulua egitea eta gastu errealarekin erosteal.*<br>*– Zenbat diru bildu den zenbatzea eta irabaziak kalkulatzea* |
| Denboralizazioa<br><br>*Azaroaren 3tik 14rako hamabostaldia* | | | |

# IV. Gehiago jakiteko

**irteerak • legedia • bibliografia**

## 1. Lan irteerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan integraziopean Oinarrizko hezkuntza amaitu ondoren, ikasle minusbaliatu psikikoei eskaintzen zaiena hauxe da: Gizarte garantiako programak «Lanbide Hastapen Berezia», hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako. Lanbide Hastapen Bereziko Programek hasierako Gela Balioanitzak ordezkatzen dituzte, Lanbide Heziketa Berezia/Ekintzen bidezko Ikaskuntza integraziopean eskaintzen zutena.

Programa hauen hartzaileak ikasle hauek badira ere, beste gainerako ikasleentzat prestatutako programen curriculum egitura berari eusten diote, baina egokitzapen batzuekin: ratioa, irakasleen espezializazioa, programaren iraupena eta abar. Honi buruzko araudia Martxoaren 11ko 100/1996 Foru Aginduan bilduta dago, modu esperimentalean Gizarte Garantiako programak arautzen dituena Nafarroako Foru Komunitate Autonomoan.

Gauzak aldatu badaitezke ere, esan dezagun momentu honetan ematen diren programak ondoko lanbide arloak direla: elektrizitatea, zurgintza, ostalaritza, sukaldaritza, ileapaingintza, nekazaritza-basogintza, oihalgintza, elektrometala, soldadura, merkataritza txikia eta mekanika. Eta gure komunitateko hainbat ikastetxetan (bai arruntak, bai berariazkoak) ematen dira: Iruña, Tafalla, Lizarra, Tutera, Elizondo, Leitza, Altsasu...

Ikasle minusbaliatu psikiko larri edo/eta ertainentzat (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako unitate berariazkoetan

(Hezkuntza Bereziko ikastetxeen alternatiboak direnak) eskolatuta) Hezkuntzako Administrazioak aurreikusten ditu heldutasunera igarotzeko prestakuntza programak.

Jarraian, hezkuntza p. bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza eskaintzak biltzen dituen lauki laburtu bat agertzen dugu, derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo ikasketei begira.

